

Oiartzungo Hizkeraren Kokagunea

KOLDO ZUAZO*

Beste zenbait udalek legez, bertako hizkera ikertzeko egitasmoa bultzatu eta babestu du Oiartzungoak eta horren emaitza izan da Ainhoa eta Idoia Frailek argitaratu berri duten liburua (Fraile & Fraile 1996). Muga zehatza zeukan liburu honek: gaurregungo oiartzuera nolakoa den erakustea. Eta, deskripzio horretan oinarrituta, oiartzuerak gainontzeko hizkeren artean izan duen eta egun duen kokaguneaz ohar batzuk egitea da, berriz, ondorengo le-roon helburua. Baina, bide batez, beste zenbait arazo harrotzeko ere baliatu nahiko nuke aukera: ezaugarri batzuen hedaduraz eta antzinatasunaz jarduteko, alde batetik, eta hizkera jakin bat sailkatzerakoan kontuan izan beharreko gertakari batzuez eta euskalkien sailkapenaz beraz jarduteko ere bai, bestetik.

Esan dezadan aurrera egin baino lehen, Oiartzungo hizkera ahalik eta egokien kokatu ahal izateko, herri horren inguruetan ere ibili naizela argibide bila. Erreterria-Irun bitartean gehienbat, baina baita Aranon, Goizuetan eta Bortzirietan ere. Hauxe da, azken batean, aztergai izan dudana eremua, nahiz eta Beterri, Toloserri, Leitzaran (Areso eta Leitza), Sunbilla, Malerreka eta Baztango albisteak ere erakutsiko ditudan noizbehinka. Herri horietako hizkerez zeuden eta ezagutzen nituen azterlanak begiratu nituen lehenbizi (horien berri izateko, ikus «Argibide Bibliografikoak»), baina bertako hiztuenengandik ere jaso ditut zuzen-zuzeneko albisteak.

Neure esker ona erakutsi nahi diet albiste horiek eskuratzen lagundu didaten guztiei eta ondorengo hauei bereziki: Joxe Luix Agirretxe (Lezo), Patri Arburua (Igantzi), Iñaki Camino (Donostia), Imanol Esnaola (Lezo), Mari Jose Ezeizabarrena (Tolosa), Ainhoa Fraile (Erreterria, Lezo), Jesus Mari Irazu (Larraul, Hernani), Gotzone Leonis (Bortzirriak), Bittorio Lizarraga (Leitza), Patxi Menta (Arizkun), Itziar Nogeras (Donostia, Igeldo), Mikel Olano (Leitza, Areso), Pascual Rekalde (Amaiur), Txomin Sagarzazu (Hondarribia,

* EHUko irakaslea.

Irun), Pello Salaburu (Arizkun), Kepa Susperregi (Errenteria), Amaia Telletxea (Arantza), Mari Beltxa Unanua (Sunbilla), Eli Urdangarin (Andoain) eta Juan Jose Zubiri (Goizueta, Arano). Baita Xabier Artiagoitia, Iñaki Camino, Txomin Sagarzazu, Patxi Salaberri Zaratiegi eta Juan Jose Zubiriri ere txosten honen lehen zirriborroa irakurri ostean egin dizkidaten ohar eta iruzkin guztiak gatik.

OIARTZUERAREN GAINEN ALBISTEAK

Oiartzun, Irun eta Hondarribiko hizkeren berezitasunez jabetu eta hizkera horietaz ohar gutxi batzuk egin zituen Larramendik bai bere hiztegian eta baita oraintsu arte argitaratu gabe egon den *Corografía*-n ere.

Hiztegian (Larramendi 1745: xxx) bertako doinu berezia, *edun*-en adizkietako *-u*- erroa (*dut, dugu*) eta partizipioan *-n* zuten aditzek geroaldia egiteko era berezia (*jan: jain, eman: emain, joan: joain, egon: egoin*) —hau soil-soilik Oiartzunen gertatzen omen zena— aipatu zituen herri horietako ezauzgarrien artean. Ezaugarri onuragarria, berriz, Lapurdiren hurbiltasunean ikusi zuen.

Corografía-n (Larramendi 1969: 300-301) nabardura txiki batzuk erantsi zituen: *edun*-eko *-u*- erroa Errenteriaraino iristen zela alde batetik eta, bestetik, Oiartzunen *esain, emain* tankerako geroaldiekin batera *esanen, emanen* gisakoak ere bazirela. Berezitasunok gorabehera, baina, gipuzkeraren barruan kokatu zuen Larramendik oiartzuera eta baita Irun-Hondarribietako hizkerak ere.

Bonapartek, ostera, nafarreraren barruan kokatu zituen bere sailkapen eza-gunean (Bonaparte 1869) eta, berriaz hizkera hauen gainean egin zuen txostenean (Bonaparte 1877), «Gipuzkoako goinafarreran» sartu zituen Irun, Hondarribia, Oiartzun, Lezo, Arano eta Goizuetako hizkerak (ikus, halaber, beraren mapa: Bonaparte 1863). Gipuzkerak hizkera hauetan eragin handia zeukala aitortu zuen, dena dela, Bonapartek. Batez ere Lezon omen zen indartsua eragin hori; *edun*-eko *-u*- erroa eta hitz esanguratsu zenbait baizik (*deus, elduna(i)z, iratze*) ez omen ziren hizkera horren nafartasunaren aztarna.

Oiartzunen ere ez zuen Bonapartek (1877: 151) geroaldiko *-in / -en* morfema aurkitu, Bizkai-Gipuzkoetako *-go (jango)* baizik. Aranon (*jain* hemen) eta Goizuetan (*yanen* hemen) jaso zuen soil-soilik morfema hori¹. Geroaldiko *-go* morfemaz gainera, hizkera hauek gipuzkerarekin batzen zituzten beste kidetasun zenbait ere ikusi zituen Bonapartek (1877: 154hh):

(1) **j*-ren [x] ebakera. Hauxe ei zegoen Aranon ere.

(2) Bizidunen inesiboko *-(en)gan* morfema: *gugan*.

(3) Kausa perpausetako *bait-* aurizki eza: *zergatik ona den*, goinafarreraz ohikoa omen zen *zergatik ona bait* egituraren orde².

1. Ez dira geroaldiekin nahastu behar Oiartzunen erabiltzen diren (*e*)*sain tzut* tankerakoak (Fraile & Fraile 1996: 32). Irizarrek Errenterian eta Lezon ere jaso zituen horrelakoak eta ohar hauxe egin zion Koldo Artolak: «*esain* horrek ez du geroaldiko zentzurik (...) orainaldikoa baizik (...) *esain tzut* hori *esan dizut* baizik ez da, *esain zkizut* ere *esan dizkizut* den bezalaxe» (Irizar 1992a-2: 559).

2. Beherago ere (183-184. or.) aipatu zuen *bait-* eza: «La forme causative (...) existe dans les deux dialectes navarrais espagnols (...) et c'est probablement sous l'influence du guipuscoan que par exception elle ne se trouve plus ni à Irun ni à Fontarabie, du moins chez les personnes qui s'en tiennent au parler exact de leur localité».

Baina Bonaparteren iritzian, gehiago ziren hizkera hauek gipuzkeratik banatzen zituzten ezaugarriak harekin batzen zituztenak baino:

(1) *izan*-en 3. pertsona singularreko *-e* (*den, dela, zen, zela*); ez Bizkai-Gipuzkoetako *-a*.

(2) *izan*-en adizkietako *-a* erroa (*gara, zara, zarate*); ez *-e* giputza.

(3) Arestian aipatu den *edun*-en adizkietako *-u* erroa; ez *-e* giputza.

(4) Trinkoen iraganaldiko *-a* erroa (*zakin, zakitten*); ez Bizkai-Gipuzkoetako *-e* (*zekiñ, zekiten*).

(5) Instrumentaleko *-taz* morfema; ez *-zaz* giputza.

(6) Lapurdin jaso zuen *-ki* aditz atzizkia (*izaki, juaki*) eta Hondarribian ere behinik behin bazena.

(7) Aditz iragankorren orainaldiko 2. eta 3. pertsona pluraleko *-te* morfema (*duzute, dute*); ez Gipuzkoa gehieneko *-e* (*dezue, due*). Orainaldiko 2. pertsonan, hala ere, Bidasoa ibai ertzeko irundarrek *-e* (*duzue*) eta hondarribiarrek *-ia* (*duxia*) erabiltzen zutela ohartu zen³.

(8) Bizkai-Gipuzkoetatik aldentzen zituzten aldaera fonetikoak: *beldur, iguzki*; ez *bildur, eguzki*.

(9) Gipuzkoan ez ziren eta Irun-Hondarribietan behinik behin erabiltzen ziren hitz batzuk: *atzeman* ‘gip. arrapatu’, *deus* ‘gip. ezer’, *ebatsi* ‘gip. ostu’, *el-du* ‘gip. etorri’, *eskilla* ‘gip. kanpaia’, *iñarrosi* ‘gip. astindu’, *iratze* ‘gip. iñastorra, garoa’, *kisu* ‘gip. kare’, *kukuso* ‘gip. arkakuso’, *leikua* ‘gip. baberruna’, *ogi* ‘gip. gari’, *oyana* ‘gip. basoa’, *pirua* ‘gip. atea’, *xilko* ‘gip. zil’...

Azentuaz ez zuen ezer argitu; berezia zela —baina herri batetik bestera aldatzen zena— soil-soilik.

OIARTZUERA GAURREGUN

Iragan garaietako albisteen berri izan ondoren, begira diezaiogun gaurregungo oiartzuerari, beti ere Ainhoa eta Idoia Frailek bildutako corpusa oinarritzat —oinarritzat eta mugatzat— daukagula.

1. Bizkai-Gipuzkoetako hizkeretatik aldentzen duten ezaugarriak

Sarri esan izan da guztiz euskalki berezia eta aparta dela Bizkai aldekoa, baina, esanak esan, badira Bizkaia ez ezik Gipuzkoa ere bere barruan hartzen duten isoglosak. Eta, inoiz, Bizkai-Gipuzkoetako hizkerak alde batera eta Oiartzungoa —eta Errenteria-Irun bitartekoak, oro har— bestera jartzen dituzte isoglosa hauek. Eredu banaketa hori erakusten dute ondorengo ezaugarriek.

1.1. *izan*-en 3. pertsona singularreko *-e* (*den, dela, zen, zela*), baina ohi-koena hauxe den arren, Bizkai-Gipuzkoetako *-a* ere (*dan, dala, zan, zala*) sarri erabiltzen da Oiartzunen eta are sarriago Errenterian⁴. Lezo-Irun bitartean, aldiz, *-e* dirudi aukera arrunta, *-a* ere —hizkera jasoan?— zeharo ezeza-

3. Gaurregun ere bizi-bizirik dirau aldaera horrek Hondarribian (Letamendia & Sagarzazu 1992: 526, Sagarzazu 1994: 622 eta Irizar 1992a-2: 429hh).

4. *dan, zan* tankerakoak gipuzkeraren eraginez sartutakoak izan zitezkeela onartu arren, honako ñabardura hau egin zuen Mitxelena (1950: 94) Errenteriako hizkeraz ziharduela: «*den* y *zen* tienden a ser sustituidos por *dan* y *zan*. Pero en frases hechas encuentro, como únicas formas, *ai danian* ‘al parecer’ y *zana* ‘el difunto’ (...)». Lezon ere *aidanean* ‘acaso’ jaso zuen Garbizuk (ikus Alzola 1962 eta Mitxelena (1962: 56) oharra).

guna ez den arren. Ostera, zenbatzaile orokorrean *-e-* dago eremu osoan (ia) beti; *dena, denak, denok...* ageri dira, esate baterako, Oiartzungo corpusean⁵. Aranon, Goizuetan eta Bortzirietan *-e-* da aukera bakarra, hala zenbatzaile orokorrean nola *izan*-en adizkietan.

1.2. Trinkoen iraganaldian *-a-* erroa dago Oiartzunen, nahiz eta erabatekoa ez den. Liburuaren egileek eurek ere badiotenez (Fraile & Fraile 1996: 128), *ibili* eta *eduki* aditzetan agertzen da gehienbat *-a-*: *na(b)illen* ‘nenbilen’, *yabillen* ‘henbilen’, *zabillen* (eta *zebillen*) ‘zebilen’, *za(b)iltzan* (eta *zebiltzan*) ‘zebiltzan’... dauzkagu alde batetik eta *nakan* ‘neukan’, *zakan* ‘zeukan’, *zanan* ‘zeneukan’, *zakaten* ‘zeukaten’... bestetik. Ostera *-e-* da ohikoena *egon* eta *jakin* aditzetan: *neon, zeon, geunden, zeundezten, zeuden* (eta *zauden*)... alde batetik eta *nekin, zekiyen* (eta *zakiyen*), *zenekiten, zekiten* (eta *zakiten*)... bestetik.

Aditz trinkoak ez dira gaurregun askorik erabiltzen Hondarribi eta Irungo hizkeretan, baina hauetan ere ez da *-a-* aukera bakarra. Bortzirietan bertan ere ez dago *-a-* erabat. Arantzan jaso ahal izan ditudan trinko apurretan *-a-* dago *eduki*-ren adizkietan eta *-a-* / *-e-* lehia *egon, ibili* eta *jakin*-enetan. Ostera, *-a-* erroa zuten Beran eta Etxalarren jaso ditudan apurrek eta erro horixe da Goizuetan eta Malerrekan ere nagusi. Gipuzkoako iparralde osoan dira, dena dela, *-a-* erroaren aztarnak. Baita Deba arroan ere, eta indartsu, gainera, hemen.

1.3. Adberbioetan *ongi, obeki* aldaeretan ere badago *-ki* osagaia Oiartzunen, nahiz eta lehiakide dituzten *ondo* eta *obeto*⁶. Aukera bikoitz bera daukagu Errenteria-Irun bitartean eta Aranon⁷. Bizkai-Gipuzkoetan eta Burundan, ostera, *ondo, obeto* dira aukera bakarrak eta *ongi, obeki* baizik ez dira erabiltzen Goizuetan eta Bortzirietan.

1.4. Bonaparteren esanak zehazte aldera, esan dezadan kausa adierazten duen *bait-* aurizkia arrunta dela aztergai nuen eremu honetan guztian eta, hemen ez ezik, baita Beterri eta Toloseri osoan ere. Badirudi Zarautz-Orio (Oriorako, ikus Iturain & Loidi 1995: 39), Larraul (J. M. Irazuk ahoz esana), Legorreta (Oroitz Jauregik a. e.) eta Abaltzisketan (Fidel Altunak a. e.) barrera datorrela isoglosa. Ugariak dira kausa balioa daukaten adibideak Oiartzungo corpusean, hala nola hurrengo hau (Fraile & Fraile 1996: 132):

txerrikiya (e)re naikua ez genun jaten, sei bat illaateko attu itten baitzen

Ostera, behin Oiartzunaz gero erlatibo perpausetan ere baden *bait-* da Gipuzkoako gainontzeko hizkeretatik aldentzen duena. Liburuan aipatzen diren adibideak (Fraile & Fraile 1996: 131), testuinguru egokirik gabe agertzen direnez, ez dira, beharbada, garbiegiak, baina balio hori izan dezake, esate baterako, ondorengo honek:

5. Antzeko gertaera ikusi dut nik neuk ere Etxarri-Aranatzen eta Ergoienan: *-a-* dago *izan*-en adizkietan eta *-e-* zenbatzaile orokorrean. Burundan, aldiz, *-a-* dago beti (Zuazo 1994: 308).

6. Gaurregun ihartuta dagoen arren, mendebalean da indartsuen *-to* atzizkia; cf. Mallabian (Bizkaia) jaso ditudan *edarto* ‘ederki’, *erresto* ‘erraz(ki)’, *politto* (cf. *politto da eurixe*), *satarto* (*satar* ‘itsusi’), *txarto* ‘gaizki’. Baina, ikus daitekeenez, mendebalaren ohiko muga gaintitzen dute *ondo* eta *obeto* aldaerek.

7. Hondarribian *ondo* eta *obeto(go)* zein *ókiyo(go)* omen dira aukerak (Sagarzazuk ahoz esana) eta Errenterian, aldiz, oso hedatuta omen dago *ongi* (Susperregik a. e.)

or nola da beste bat, arotze(gi)ya baitu (100)

Gardenagoak dira T. Sagarzazuk Hondarribian jasota eman dizkidanak:

- a. *Pátxo Rodríguez, Irúnen, Alárdjan jwáten bájta jenerál, jwáten bájsen, pwés, arék in tzwén saldú*
- b. *sasí-iskiñetan ta belár, paréta sárretan, belár lusé bat isáten da, pegátzen bájta, pottóko bázwek ítten bájttu..., bérde-bérde bat*

Oiartzundik ekialdera dauka, beraz, *bait-* aurrizkiak erlatibo balioa. Isoglosaren beste aldean daude Erreterria, Lezo, Arano eta Goizueta.

1.5. Denbora eta modu perpausetan Bizkai-Gipuzkoetako *-(e)la* morfemaz gainera —eta hauxe da Oiartzunen ere ohikoena—, *-(e)la(r)ik* ere bada aukeran (Fraile & Fraile 1996: 135, 141):

- a. *urtego goizin karri zutela barauik z(eg)olaik*
- b. *gu ttikiyak giñalaik beti ama(b)irjin belarra izate genuin*
- c. *arrek interina bezela zebilelaik intzun tituloa atera euskerana*
- d. *jartzen zattu muitzeko gauza etzealaik*

Erreterrian, Aranon eta Goizuetan *-(e)la* besterik ez dut jaso; Lezo eta Oiartzundik ekialdera dago, beraz, *-(e)la* / *-(e)larik* aukeran.

1.6. *-koz*, *-(e)lako* ez dira gaurregun Bizkai-Gipuzkoetan ezagunak. Corpus honen arabera, Oiartzunen ere ez dira maiztasun handikoak, baina *-koz* behintzat bada:

artzen asi nintzanekoz, nik i(g)arri niyon (138)

Kausa perpausetan, ostera, *-(e)lako* da corpusean azaltzen den aukera bakarra (Fraile & Fraile 1996: 133-134) eta hauxe da Erreterrian ere arruntea, nahiz eta *-(e)lako* ere ezagutzen eta erabiltzen duten zenbait hiztunek. Lezon *-(e)lako* zein *-(e)lako* biak omen daude (I. Esnaolak a. e.). Lapurdi, Bortziriak eta Goizuetatik —baina atzeraka doa herri honetan— ekialdera ohikoagoa da *-(e)lako(t)z* eta Hondarribian bertan ere bada *-kos* / *-kotz*; cf. Sagarzazuk eman dizkidan *gérokotz*, *órdukos*, *neréztakos*, *guréztakotz*, *órtakotz*, *(amaláw) urtéakotz*, *(sartú) órdukotz*...

1.7. Aditzoina Gipuzkoan eta, batez ere, Bizkaian baino sarriago erabiltzen da Oiartzunen eta Erreterria-Irun bitartean oro har, hemen ere aditzoinaren eta partizipioaren esparruak erabat bereizten ez diren arren. Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 120hh), subjuntiboan arrunta ei da aditzoina Oiartzunen: *kunpli dadilla*, *senda dadilla*, *ikus (d)ezatela*, *etor daiztela*... Baita aginterako Nor-Nork adizkietan ere: *artzazu*, *ekartzak*, *se(g)i zak*, *aguanta zan*, *konta zak*, *pentsa (eza)zute*... Eta osterantzeko kasu batzuetan ere erabiltzen da noizbehinka: *jar azi*, *kanta eazi*...

Aranon eta Goizuetan, beste gauza askotan legez, honetan ere ez dago batasunik. Maiz samar erabiltzen da partizipioa Aranon eta, ostera, aditzoina da zeharo nagusi Goizuetan (J. J. Zubirik a. e.). Ohikoa da, era berean, Bortzirietan. Dena dela, Beterrin bertan ere erabiltzen da aditzoina, erabiltze horren gorabeherak oraindik ere zehaztu ez ditudan arren⁸.

8. Baliteke Beterriko hizkera batzuetarik besteetara aldeak ere izatea. Lasarte-Oriako hizkeraz egin berri den azterketak iradokitzen duenez, esate baterako, aditzoinak ez dirudi herri horretan maiztasun handikoa (Labaka, Azurza & Bereziartua 1996: 40-41).

1.8. Aldaera fonetiko zenbait: *beldur* (baina *beldur* zein *bildur* Lezon eta Hondarribian eta *bildur* gehienbat Erreterian), *biño(n)* / *miño(n)* ‘baina, baino’, *elkar* (baina *alkar* ere bada eta hauxe da Lezon jaso dudak bakarra), *i(g)uzki* (baina *eguski* / *euski* dira Goizuetan, Hondarribian eta Erreterian arruntenak), *ttiki* (baina *txiki* ere bada eta, alderantziz, Beterrin ere bai *tti-ki*)... Baita hitz zenbait ere⁹: *arrunt* ‘oso’ adierarekin, *aski* ‘nahikoa’, *azkarra* ‘indartsu’ adierarekin, *betti* ‘behera’ eta *gotti* ‘gora’ (baina *gora*, *bera* ere badira Irunen eta hauexek dirudite Erreterian ohikoenak), *deus* (*ezer* ere baden arren), *eldu* (*etorri* ere baden arren), *pizar* / *pixar* ‘apur’, *solasa* ‘hizketa’ (Hondarribian *jolasak* ‘hitzak’ ezaguna ei da, baina arrotzak dira hitz hauek adiera honekin Erreterian), *zoritu* ‘heldu’ adierarekin...

2. Bizkai-Gipuzkoetako hizkerekin batzen duten ezaugarriak

Osoz edo partez Oiartzungo hizkera —eta Erreteria-Irun bitartekoak, oro har— Bizkai-Gipuzkoakoetatik aldentzen zituzten ezaugarriak erakutsi dira aurreko sailean. Herrialde bi haiekin batzen dituztenak erakutsiko dira honetan.

2.1. Salbuespen gutxi batzuk gorabehera (*egwaldi*, *egwerdi*), oiartzueran ez dira ohikoak goranzko diptongoak. Maileguetan ere saihestu egiten dira. Monoportongatzea (*kanbitu* ‘kanbiatu’, *antijukin* ‘antejoekin’, *erreminta* ‘erramienta’, *azinda* ‘azienda’, *igula* ‘iguala’, *pañulu* ‘pañuelo’), diptongoa haustea (*pa.rí.en.te*, *Ma.rí.a.no*, *go.bí.er.no*) eta, inoiz, kontsonanteren bat tartekatzea (*biraje* ‘biaje’) izan ohi dira saihebidetuek (Fraile & Fraile 1996: 37hh, 47).

Erreterian, Lezon, Aranon eta Goizuetan ere ez dira arruntak goranzko diptongoak, baina bai behin Hondarribiaz gero, Sagarzazuk bertan jasotako *sémja*, *emakúmja*, *alkátja*, *béstja*, *flákwa*, *gírwa*, *órdwa*, *jókwa*, *mútwa*, *múrrwa*, *gáñjan*, *gójsjan*, *bátjan*, *astelénjan*... bezalako adibideek erakusten dutenez (cf., era berean, Letamendia 1990: 45 eta Letamendia & Sagarzazu 1992: 511).

2.2. Erdal *-on* > *-oi* bilakatu da Bizkai-Gipuzkoetan bezala, eta *arratoi*, *arrazoi*, *kantoya*, *sasoi* bezalako mailegu zaharretan ez ezik, bilakaera bera daukagu oraintsuagokoetan ere Oiartzungo corpusean: *bastoya*, *botoya*, *galoyak*, *garrapoya*, *kabroya*, *koltxoya*, *panparroi*, *tabloya*, *turroi*... Ez dago, beraz, Nafarroa gehienean —Bortzirriak eta Malerreka barne— erabiltzen den *-ona* (cf. *balóna*, *frontóna*, *melókotona* Arantzan) ez eta Lapurdin eta Nafarroa Beherean —Urdazubi, Zugarramurdi eta Luzaide barne— erabiltzen den *-oina* (cf. Baztanen bertan ere ezagunak (izan) diren *arratoina*, *arrazoina*, *sasoina*).

Oiartzunen bezala, *-oi* dago Erreteria-Irun bitarte guztian, Aranon eta Goizuetan, nahiz eta azken herri honetan erdal *-ion* > *-ioi* / *-ion* (cf. *abioia* / *abiona*, *kamioia* / *kamiona*) aukera bikoitza dagoen (J. J. Zubirik a. e.). Hondarribian bertan ere jasoak ditu Sagarzazuk (a. e.) *abjóna* eta *kamjóna* eta (*a*)*kordjóna* ere bai Irunen.

2.3. *-st-* kontsonante multzoa dago Erreteria-Irun bitartean, Aranon eta Goizuetan; cf. Oiartzungo corpuseko *beste*, *bost*, *ostegun*, *ostiral*... Aldiz, Lapurdin, Bortzirriak eta Malerrekatik ekialdera, oro har behintzat, *-rtz-* (*bertze*, *bortz*) daukagu. Era berean, *esan* aldaera dago alderdi hartan; *erran* beste ho-

9. Begibistakoak diren arrazoiak gatik, eguneroko jardunean sarri erabiltzen diren hitz banaka batzuk baizik ez ditut aipatzen. Ez bedi ahaztu, gainera, Fraile & Fraile (1996) liburuko corpusa dela nire lanaren muga.

netan. Malerrekari dagokionez, Sanchez Carrionek (1974: 261) aurkitu zuen leku berean aurkitu dut nik neuk ere isoglosa: *-st-* multzoa eta *esan* aldaera daude Zubietan eta, ostera, *-r(t)z-* multzoa eta *erran* Ituren eta Beintza-Labaiendik ekialdera.

2.4. Orain arteko dialektologia ikerketetan ez zaio adberbioek eta bigarren mailako predikatuek hartu ohi duten morfemari jaramon handirik egin. Badirudi, oro har, mugagabea edo partitiboa erabili ohi dela Bizkai-Gipuzkoetan; cf. *trankil-trankilØ g(er)atu da; ixil-ixillIK e(g)on da* Mallabian (Bizkaia). Ostera, absolutiboa ere bada aukeran ekialderagoko hizkeretan. Larasketek (1931) Barkoxen jasotakoak dira honako adibide hauek:

- a. *nabi babitzáit amáen altzún ikhássi günín gísa plañ-plañA mintzátü* (233)
- b. *amuineúk, ixil-ixilA, hámar libeáko iürhía trozátzen dik bukanásgóri kantú batétan* (235)
- c. *hori éran bezain ssári, Kadétek, érriz, mandúü trósstà éman ziuá eta bi jáunak ondún sso, ahúk zabal-zabálA!* (236)
- d. *askáittúa egínik (...) búruzagik eráiten diék, leñ-léñA* (239)

Zuberoa baino mendebalerago ere bada absolutiboa, hala nola N'Diaye-k (1970) Amaiurren (Baztan) jasotako adibide hauetan:

- a. *mendi guziek trankil-trankilEK zauden* (62)
- b. *iustu-iustuE bizi dire* (123)
- c. *ixil-ixilE denak ongi pasatu ziren* (123)
- d. *xintxo-xintxoA ibil daiela an emen bezala!* (207)
- e. *nere iloak badakit berdín-berdínE ibiltzen direla* (238)

Baita Izagirrek (1967) Altsasun (Burunda) jasotako hauetan ere:

- a. *gaztejedik baderuitei páloma(k) tiala zuri-zuriyA bidé luzáin datózilá* (56)
- b. *geldi-geldiyA iyo naiz* (64)
- c. *garbi-garbiyA errée, garbi-garbiyA in da eltzeá* (76)

Malerrekan ere —aztergai nuen eremuaren mugan, beraz— ez dira ezezagunak honelako egiturak, Zubietako adibide hau lekuko (Elkarren artean 1995: 91):

faborez alde egitteko andik, san min zien sarjentuk, ta xil-xil-xilA joan min zeren

Zubietan bertan jasotakoak dira beste hauek ere (Zubietako Udala 1996):

- a. *berbena belarrak bota ara ta mantxu-mantxuA patu ta xapaka, xapaka, xapaka, an era(bi)lli, beun jugua bota zatela* (9)
- b. *gabín bestik erretiratzikin, xi-xillA karri ta patz'n zozten ta (g)ero goizik kusten giñun* (12)

Bizkai-Gipuzkoetako hizkerekin bat dator aztergai nuen eremu osoa, baina behin, horratik, absolutiboa ere azaltzen da Oiartzungo corpusean:

ta antxe gu ixil-ixillAK eon ber, deuse jakinki ezta (106)

2.5. Genitibo singularrean *-an* morfema dago Oiartzunen; ez ekialderagoko (Baztanen, esate baterako) *-ain*:

- a. *martxuan amabostian* (157)
- b. *gure atta zenan denbun* (165)
- c. *nee aman la(g)una* (184)

Aldaera bera edo bertsuak erabiltzen dira aztergai nuen eremu osoan. Goizuetan (eta Aranon), dena dela, bada *-in* aditzen geroaldian: *emain*, *izain*, *yoin* (ikus § 2.8).

2.6. Ablatibo pluralean eta mugagabeen *-(e)tatik(an)* dago oiartzueran; ez ekialderagoko (Baztanen, esate baterako) *-(e)ta(r)ik*. Aldaera bera dago erakusleetan: *artatik* ‘hartatik’. Bat datoz honetan ere aztergai nuen eremuko hizkera guztiak (*-tik* izan da Bortzirietan singularrean zein pluralean jaso dudana).

2.7. *onuntz*, *aruntz* adizlagunak daude Oiartzunen. Baita Erretereria-Irun bitartean, Aranon eta Goizuetan ere; baina *(h)unat* / *onat(a)*, *(h)arat(a)* behin Lapurdi, Bortziriak eta Malerrekatik ekialdera.

2.8. Aditza *-n* batez amaitzen denean, *-go* dago geroaldia osatzeko Erretereria-Irun bitartean; cf. Oiartzungo *e(g)ongo*, *(e)sango*, *(eg)ingo*, *izango*, *jo(a)ngo*... Bonaparteren garaian ez bezala, *-go* dago gaurregun Aranon ere, adin handiko hitzunen jardunean *-en* (batzuetan *-in* bilakatua) zeharo arrotza ez den arren. Goizuetan bertan ere *-en* (> *-in* batzuetan; cf. *jakiñen* / *izain*) / *-go* lehia dago, baina *-en* da Bortziriak, Malerreka eta Leitzatik (*-go* dago Areson) ekialdera nagusi (Leitzaran, Arano eta Goizuetarako, ikus Azpiroz, Olano & Zubiri).

2.9. Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 118-119), ahale-
ran ohikoak dira **ezan* eta **edin* errodun adizkiak:

- a. *aik karri lezateke xextoka(da) bat sa(g)ar*
- b. *nik eman nezake bazkaya anayai*
- c. *ni zuregana jo(a)n nitteke*

Gazteengan, dena dela, geroz eta ohikoagoak ei dira egitura perifrastikoak:

- a. *miño jan ta seittun posible da jun*
- b. *nik posible nun lenbiziko goizero filan jarri*

Hondarribian ere ohikoak dirudite honelako egiturek, baina ez Erretererian. Ostera, Erretereria-Irun bitartean, Aranon eta Goizuetan ez da behin Lapurdi, Bortziriak eta Malerrekatik ekialdera nagusituz doazen —edo da-goeneko zeharo nagusitu diren— ‘ikusten a(ha)l dut’ / ‘ez dut ikusten a(ha)l’ tankerakorik, hau da, partizipio inperfektiboa duen egiturakorik.

2.10. Perpaus konpletiboetan ohikoa da *-(e)nik* perpaus nagusiko aditza ezezkoa denean (Fraile & Fraile 1996: 148):

- a. *guk eztugu sekulan pentsatu deuse guri ingo (d)igutenik*
- b. *ta eztut uste egualdi txarra zenik*
- c. *eztu ematen a(r)i du(e)nik*

Bat datoz honetan Erretereria-Irun bitarteko hizkerak, Arano eta Goizuetan. Bortzirietan, ostera, *-(e)la* iruditu zait (?) bai baiezko eta bai ezezko perpausetan sarrien erabiltzen dena eta are indartsuagoa da joera hori Baztanen, N^oDiayek jasotako adibideek ere erakusten dutenez¹⁰:

10. Dena dela, *-(e)nik* ere ez da zeharo ezezaguna Baztanen. Bertan eman dizkidate adibide hauek:
a. *eztu erran mekanika badakienik* (Arizkun)
b. *enakien apezak atsaldeko meza erakutsi (?) zuenik* (Elizondo)
c. *ezpainakien martxan zaonik* (Elizondo)

- a. *eztut uste aren gustokoak garela* (97)
 b. *etzait iduritzen aunitz gustetzeko zaitugule* (218)

2.11. Ostera, perpaus konpletiboetako *-(e)n* ez da ezaguna Oiartzunen; baina bai behin Irun eta Hondarribiraz gero. *EAEL*-k (155. etnotestua) Irunen batutakoak dira adibide bi hauek:

- a. *ta ortáko ník usté arrék geiádo jakingo duén*
 b. *oáin é usté ut ala seítzen duen, eztákit segúro biño*

Bortzirietan ere ezaguna da *-en*, nahiz eta ez dirudien gazteriaren jardunean ohikoa; cf. Igantzín jaso dudán *uste (d)ut afáltzera torko den* edota Gamindek (1994: 236) Etxalarren jasotako *uste dut bazkaldu (du)ten; eztut uste ekarri (du)ten*. Ostera, Erreterian, Lezon, Aranón eta Goizuetan ez da aukera hau ezaguna.

2.12. Oiartzungo corpusean guztiz ohikoa da ‘*zertik(an)* + aditz laguntzailea + *eta*’ egitura kausa perpausetan; cf. Fraile & Fraile 1996: 133-134:

- a. *biziko zen u(r)a, zertikan ni biño gáztio zen ta*
 b. *bazpare gutxiyo obia, zertik au toki delikadua da eta*

Egitura honekin batera, sarritan kausa balioa izan ohi duen ‘aditz laguntzailea + *-(e)la eta*’ ere bada:

atia jo zi(g)uten norbattek ta gure atta difuntua izutu atia jo zi(g)utela ta

Bat datoz honetan aztergai nuen eremuko hizkera guztiak, baina ez dira arruntak ekialderagoetan (Baztanen, esate baterako).

2.13. Ohikoa da *egin* indargarria Oiartzunen. Erabili ere Bizkai-Gipuzkoetan bezala egiten da:

- a. *garbittu (e)re ez giñan itten ordun* (129)
 b. *arbolak ta ze(r)ak izan ezkeo enitzake galdu (e)re ingo* (130)
 c. *erreta otia galdu itten da, biño mazka gallendu itten da* (166)
 d. *kupela itten da leortu* (176)

Bat datoz honetan Erreteria-Irun bitarteko hizkera guztiak, Arano, Goizuetan eta Malerreka, baina Bortzirietan ez zait iruditu (?) horren ohikoa. Ekialderago —Baztanen, esate baterako— nabarmen gutxiago erabiltzen da.

2.14. Ezin jakin dezakegu bizidunen inesiboko morfema *-(en)gan* ote den, Bonaparteren garaian bezala. Galduta dago morfema hori Oiartzunen eta gauza bera ikusi dut aztergai nuen eremu osoan; sozietiboko *-kin* eta bizigabeetako *-tan* jaso ditut balio horrekin. Esan dezadan, dena dela, Baztanen —aztergai nuen eremua baino ekialderago, beraz— *-(en)gan* bildu zuela Salaburuk (1984-2: 177hh).

2.15. Liburuaren egileek diotenez (78-79. or. taulak), prolatiboarendako morfema berezirik ere ez dago egungo oiartzueran; *gizona bezala* tankerako esapideak omen dira beraren ordezkioak. Gauza bera ikusi dut Erreteria-Irun bitarte osoan, nahiz eta *-tzat* ere jaso duen Ainhoa Frailek Lezon: *jauntxotzat daka bere burua*. Baita Sagarzazuk ere Hondarribian: *arráya (...)* *ga(r)estítzat lajátu*.

Bortzirietan instrumentala jaso dut prolatiboaren orde; cf. Arantzako *eztut nere burua zarraz jotzen*. Aranon eta Goizuetan, aldiz, ez ei da zeharo galdu prolatiboa eta *-tzatzako* da bertako aukera (Azpiroz, Olano & Zubiri); ez Zuberoa eta Nafarroa gehieneko *-tako*.

2.16. Ainhoa eta Idoia Fraileren liburuan ez da ia ezer esaten azentuaren gainean eta transkripzioetan ere ez dituzte behin ere jarri. Badira, ordea, azentuaren arabera ezar litezkeen zenbait isoglosa eta ondorengo hauxe denetan esanguratsuenak. Baztan-Ultzama lerroan abiatu eta Erronkarira bitartean hitzaren eskuinaldetik hasita bigarren silaban ezarri ohi da azentua, [-2] da, beraz, araua. Oso nabarra da aipatu den lerrotik mendebalera dagoen egoera, baina [-2] araua ez da, behinik behin, ohikoa (zehatzago: Gaminde & Hualde 1995).

Hondarribian, Irunen, Bortzirietan eta, dirudienek, Malerrekan ezkerretik hasita hitzoinaren bigarren silaban kokatu ohi da gehienetan, [+2] da, beraz, araua. Hitz markatu eta silababakarreko hitzoina dutenak dira salbuespena, hauetan [+1] da eta araua. Batez ere Holmerrek (1964), Mitxelenak (1972, 1976, 1977) eta Hualde & Sagarzazuk (1991) aztertu dute alderdi honetako azentua eta, Mitxelenak (1972) erakutsi zuenez, tankera berekoa zen Urte donibandarraren izkribuetako eredia¹¹.

Esangura desberdineko hitz pareak banatzen dituen azentu bereizgarriaren arabera ezar daiteke bigarren isoglosa. Bizkai-Gipuzkoetako hizkera askotan eta aztergai nuen eremu osoan dago azentu bereizgarri hau (Gaminde & Hualde 1995), baina ezezaguna da ekialderago, Baztanen esate baterako (Salaburu 1984-2: 307). Mitxelenak berak (1958: 40-41, 1977: 385 eta, zehatzago, Etxenike 1988: 508hh) osatu zuen Errenterian bereizten ziren hitz pareen zerrenda bat; hala nola *basuá* ‘oihana’ / *basuà* ‘edalontzia’, *iltziá* ‘iltzatzekoa’ / *iltzià* ‘heriotza’, *eltziá* ‘lapikoa’ / *eltzià* ‘eustea’...

Singularra eta plurala desberdintzen dituen azentu bereizgarriaren arabera ezar daiteke hirugarren isoglosa. Aldeak alde, Bizkai eta Gipuzkoa gehienetan eta baita, gutxienez, Nafarroako mendebaleko hizkera zenbaitetan dago azentu bereizgarri hau¹², baina ez da guztiz berdina herrialde bi haietan eta Nafarroako hizkera batzuetan jaso dena. Bizkai-Gipuzkoetan —azentu bereizgarria dagoen hizkeretan, jakina— pluralean singularrean baino ezkerre-rago ezartzeko joera dago; cf. erg. sg. *umiek* / erg. pl. *úmiek* ‘umeak’; genit. sg. *onéna* ‘honena’ / genit. pl. *ónena* ‘hauena’, *eutzén* ‘zion’ / *éutzen* ‘zioten / zien / zieten’ Mallabian (Bizkaia).

Ostera, liburuaren egileek aditzera ematen dutenez (Fraile & Fraile 1996: 72, 93), Nafarroako hizkerekin egiten du bat Oiartzungoak, singularrean baino eskuinalderago ezartzen delako pluralean:

- a. erg. sg. *mé(d)ikuk (e)san du* / erg. pl. *me(d)ikúk in dute*
- b. dat. sg. *gizónai* / dat. pl. *gizonai*
- c. sg. *béak itten du ikusten duenin* / pl. *beák uzten dute gu umillatzen geala*

11. J. I. Hualderen arabera (a. e.), gaurregun Hondarribian dagoen azentuarekin dauka loturarik estuena Urterrenak. Hondarribiko azentuaren berezitasunez, ikus Hualde & Sagarzazu 1991.

12. Baita, jakina, Zuberoan (eta Erronkarin) ere. Azentu bereizgarri honetaz zehatzago: Gaminde & Hualde 1995.

Dena dela, lege hau ez ei da erabat betetzen egungo oiartzueran (Fraile & Fraile 1996: 72). Esan dezadan honen harian, tankera bertsukoa dela Ibarrak (1995: 359) Imotzen eta Basaburuan jaso duen azentu eredua; cf. Berueten (Basaburua):

erg. sg. *émakumèk in do* | erg. pl. *emàkumék in dute*

Baita, antza denez, Leitzararen dagoena ere (Azpiroz, Olano & Zubiri). Alderdi honetako azentua zeukan, nonbait, Uitzin hazitakoa zen Nikolas Ormaetxeak ere gogoan «en la parte de Navarra cuyo vascuence me es más familiar» esan zuenean eta honako adibide hauek jarri: *gizonàk egin du* | *gizonàk egin dute* (Ormaetxea 1918: 6).

Badirudi Oiartzun eta Lezo-Erreterria artean (izan) dela azentuera honen isoglosa: hizkera nafarrekin etorri da bat Oiartzun eta Bizkai-Gipuzkoetakoe-ekin Lezo eta Erreterria (cf., Erreterriarako, Holmer 1964: 38 eta 52, Mitxelena 1977: 576hh, Mitxelena 1987: 235 eta 247 eta Etxenike 1988: 508). Hondarribian (Hualde & Sagarzazu 1991: 141), Goizuetan (Azpiroz, Olano & Zubiri) eta Bortzirietan (cf., Lesakarako, Gaminde 1996: 48), aldiz, ez du ematen azentu bereizgarri hau izan denik (ezta Baztanen ere; cf. Salaburu 1984-2: 307).

2.17. Oiartzungo corpusean azaltzen diren aldaera fonetikoak: *itxi* (ekialderago —Baztanen— *etsi, hertsì*), *orain* tankerakoak (ekialderago —Baztanen— *orai* gisakoak, *-n* gabeak)... Baita hitz banaka batzuk ere¹³: *irurogei* eta *laurogei* (ekialderago —Bortzirietan— *(h)iruetanogei, lauëtanogei*), *bi* aukera bakarra (ekialderago —Etxalarren eta Sunbillan— *bi* | *bi(g)a* aukera bikoi-tza), *atze* eta *aurre* (ekialderago —Bortzirietan— *gibel, aitzin*), *asko*¹⁴ (ekialderago —Bortzirietan— *(h)a(u)nitz*)...

3. Euskal Herriko erdiguneko bereizgarriak

Badira Lapurdi, Nafarroa Behere eta Nafarroa Garaiko eremu zabalean garatutakoak diruditen berrikuntza zenbait. Eremu zabala eta trinkoa —etenik gabea, alegia— denez, pentsa liteke antzinakoak direla berrikuntzok. Eta nabarmendu beharrekoa da berrikuntza hauek ez direla Gipuzkoara hedatu edo, hedatu badira, indar txikiz iritsi direla. Erreterria-Irun bitarteko hizkerak —eta ondoko gutxi batzuk— dira Gipuzkoa barruan salbuespena. Hiru dira multzo honetan aipatuko diren ezaugarriak:

3.1. Aditzetako *-te* pluralgilea. Oso indartsu azaltzen da Oiartzunen: *dute, dakite, niñuten* ‘ninduten’, *zayote* ‘zaie’, *ziyoten* ‘zitzaien’, *(di)yotet* ‘diet’, *niyoten* ‘nien’, *(d)izutet* ‘dizuet’, *nizuten* ‘nizuen’, *genizuten* ‘genizuen’, *dozte* ‘daude’, *zozten* ‘zeuden’... Aldaera hau (cf., esate baterako, *dute*), Donostia —Igeldora eta Añorgara ez erabat—, Astigarraga eta Hernanira hedatu da, nahiz eta *-e* ere jaso dudan Hernanin (zehatzago: Irizar 1991-1). Aranon bertan ere *-e* da nagusi (Azpiroz, Olano & Zubiri).

Iragankorretako orainaldiko 2. pertsona pluralean ere bada *-te* Oiartzunen (*duzute* ‘duzue’, *nazute* ‘nauzue’, *(d)iguzute* ‘diguzue’, *(di)yozute* ‘diozue’) eta horixe da pluralgile honek Irun-Erreterria guztian eta are Donostia, As-

13. Gogora bedi (9) oinoharrean esandakoa.

14. Baina nabarmendu dezadan behin Oiartzunaz gero *asko* izenaren ezkerretara ere erabiltzen dela, Bizkai-Gipuzkoetan ez bezala; cf. *asko aldiz* (Fraile & Fraile 1996: 85).

tigarraga eta Goizueta bitartean daukan indarraren seinale. Bortzirietan, Ma-
llerrekan eta Aranon *-e* dago eta *-zjá*, *-zjé* / *-zwé* / *-zute* lehia Hondarribian
(Sagarzazuk a. e. Zehaztasun gehiago: Irizar 1991-1 eta 1992a-1/2).

3.2. *-ki* aditz atzizkia ere indartsu azaltzen da Oiartzunen. Gure corpuse-
an *a(r)iki*, *biziki*, *e(g)oki*, *ibilki*, *izaki* eta *jakinki* ageri dira, baina Manuel Le-
kuonak (1956: 146) *ekarki*, *erabilki*, *eramaki*, *etorki* eta *eukiki* ere aipatu zi-
tuen Oiartzunen erabiltzen zirenen artean. Atzizki honek dituen balioei da-
gokienez¹⁵, hona hemen kausa adierazten duten hauek (Fraile & Fraile 1996:
106):

- a. *ta antxe gu ixi-ixillak eon ber, deuse jakinki ezta, itz bat jakinki ezta*
- b. *ordun e(re) ganberruk izaki, ta erroskillan puesto guziya txikitu ziyoten*

Puntukaritasuna adierazten dute beste hauek (105):

- a. *ta an a(r)iki, ba, atta lau semekin*
- b. *ni mendiyan ibilki ta au tokatu z(a)it*
- c. *ni an billaka ta ge(r)o an e(g)oki*

Agur gisa-edo, ‘ari zara?’, ‘bazabiltza?’ adierarekin erabili da honako ho-
netan (105):

a(r)iki, a(r)iki!

Adbertsatibo-kontzesibo balioa zutenak ere aipatu zituen Lekuonak
(1956: 146):

- a. *aurrian izaki, ta ekusten ez*
- b. *azkenetan egoki, ta ongi zegola*
- c. *auzuan biziki, ta izagutzen ez*
- d. *dirua izaki, biño bera burugabia izaki*

Aztergai nuen eremu osoan ere ohikoa da atzizki hau, baina, dirudienez,
Oiartzungo balio guztiak ez dituzte Lezon eta Errenterian eta atzizkia hartu
ohi duten aditzak ere gutxiago dira herri bi hauetan (*izaki* eta *egoki* baizik ez
ditut jaso, esate baterako, Errenterian)¹⁶. Errenteriatik mendebalera, aldiz, ez
da arrunta, nahiz eta *izaki* behinik behin, Donostiaraino (izan) den ezaguna.

3.3. Maiztasun handia daukate oiartzueraz *ate(r)atu* ‘atera’, *bizittu* ‘bizi’
eta, batez ere, *e(g)ondu* ‘egon’, *izandu* ‘izan’ partizipioek. Liburuaren egileek
ere badiotenez (Fraile & Fraile 1996:104), azken bi hauek bilakatu dira oi-
narrizko forma eta ia zeharo baztertu dira jatorrizko *izan* eta *egon*; cf. *amaki-
ña bider Andres e(g)ondu izandu da*. Aztergai nuen eremu osoan jaso ditut
tankera honetako partizipioak —*jakindu* ere bai Lezon, Errenterian eta
Etxalarren eta *botatu* Hondarribian—, baina Beterrin eta Toloserrian bertan
ere ohikoak dira *egondu*, *izandu* eta *bizittu* eta *ibilittu* aldaera ere jaso dut As-
tigarragan eta Ereñozun (Hernani).

15. Atzizki honen balioez eta Nafarroa Garaian daukan hedaduraz, ikus Iñigo, Salaberri & Zubi-
ri (1995) artikulua, sakon eta zehatz dokumentatua.

16. Errenterian *izakiki*, *e(g)okiki*, *juakiki* bezalako aldaera pleonastikoak ere bazirela zioen Mitxe-
lenak (1950: 91), baina gaurregun ez dela horrelakorik esan didate neure berriemailek niri.

4. Euskara nafarraren bereizgarriak

Esanguratsua da Nafarroako bereizgarri diruditen batzuk Erreterria-Irun bitarteko hizkeretara ere hedatu direla ikustea; baina ez Gipuzkoako gainekoetara. Hona hemen zerrenda:

4.1. Bokal atonoak galtzearen ondorioz sortu ohi diren aferesiak dira eremu honetako ezaugarrietako bat: *billi* ‘ibili’, *karri* ‘ekarri’, *kasi* ‘ikasi’, *kusi* ‘ikusi’, *kuttu* ‘ikutu’, *man* ‘eman’, *san* ‘esan’, *torri* ‘etorri’, *zan* ‘izan’, *zautu* ‘ezagutu’ dira Oiartzungo corpusean bildu direnak. Maiztasun handiz erabiltzen dira, nahiz eta liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 25), Lesakatik gertuen dagoen Ergoien auzoan eta adineko hiztunen jardunean omen daukan indarririk handiena. Aztergai nuen eremu osoan dago, aldeak alde, aferesirako joera.

4.2. Sinkopa da bokal atonoak galtzearen beste ondorioetako bat. Oiarztunen ez da ugaria: *gain(e)tik* (eta *gain(e)ko*), *gorpuz(e)tik*, *bizitz(a)tan*, *egun(e)tan*, *eskumuturr(e)tan*, *Artikutz(a)ko*, *ol(a)ko*, *zer(ga)tik*, *arr(a)patu*, *zin(e)ten* bezalako banaka batzuk ageri dira. Aditzetan erabat samar betetzen da *-ta-*, *-ga-*, *-a* > *ø*: *akor(da)tu*, *bo(ta)tzen*, *entre(ga)tu*, *errez(a)tu*, *espos(a)tu*, *gal(de)tu*, *kontes(ta)tu*, *pas(a)tzen*. Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 27), Ergoien auzoan eta oso adin handiko hiztunen jardunean entzuten dira gehienbat era honetako aldaerak eta Lezon, Erreterrian eta Aranon ere ez dira batere ohikoak; *botzen* ‘botatzen’ eta *pasten* ‘pasatzen’ baizik ez omen daude, esate baterako, Lezon (J. L. Agirretxek eta I. Esnaolak a. e.).

Ostera, orokorra da geroaldietako *-i* sinkopatzea Oiarztunen: *karko* (eta *ekartako*), *ibilko*, *kusko*, *torko...*, baina honelakoak han-hemen —eremu trinkorik osatu gabe— Euskal Herri gehienean erabiltzen dira: Gernikaldean, Uribe kostan, Txorierrin eta Nerbioi arroan Bizkaian; Baztanen, Malerrekan, Sakanan, Aezkoan... Nafarroan, e.a. Bortzirietan, Goizuetan —nekezago Aranon— eta Irun-Lezo bitarteko hizkeretan ere —nekezago Erreterrian— betetzen da.

Sinkopa dela eta, gaurregun behinik behin, muga garbi samarra nabari da Oiarztun-Irun bitarteko hizkerak, alde batetik, eta bestetik, Bortziriak-Malereka-Goizueta aldeko hizkeren artean. Beti esan ohi da Zaraitzun eta Erronkarin dela sinkopa ugariena, baina Bortzirietan eta Malerrekan ere oso indartsua da eta kontsonante multzo harrigarriak sortzen dira. Holmerrek (1964) Arantzan jasotako aldaerak eta nik neuk bertan egiaztatutakoak dira ondorengoak: *gastánb(e)ra*, *abil(e)na*, *polít(e)na*, *garíz(u)ma*, *txokól(a)tia*, *zte* ‘dituzte’, *stti* ‘zaitez’, genitiboko *-neko* > *-nko* (*aitzínko*, *gáinko*), *-netako* > *-ntko* (*óintkuk* ‘oinetakoak’), *-rreko* > *-rko* (*baztérko*, *ezkérko*, *ezúrko*, *lúrko*) eta *-tako* > *-tko* (*errítkua* ‘herrietakoa’, *unétko* ‘honetako’), inesiboko *-ketan* > *-ktan* (*Ameriktan*, *ánktan*, *berríktan*), aditzizenetako *-teko* > *-tko* (*yátkua* ‘jatekoa’, *yuátko* ‘joateko’) eta *-tzeko* > *-tzko* (*yótzko* ‘jotzeko’, *kártzko* ‘ekartzeko’), kausako *-elakoz* > *-elkoz* (*dutélkoz*)... Nik egiaztatu ezin izan ditudan aldaerak ere (cf. *garágra*, *garágrilla*) jaso zituen Holmerrek Arantzan.

Bortzirietan, beraz, ozen + herskari (cf. *aitzínko*, *baztérko*, *dutélkoz*), txistukari + herskari (cf. *elízko*, *yótzko*, *zte*), herskari + herskari (cf. *errítkua*, *berríktan*), ozen + ozen (cf. *zár(re)na*, *abílna*, *astélna*), herskari + ozen (cf. *atáb(a)la*, *gastánbra*, *atzápbra*, *kazkábbra*, *polítna*) bezalako multzoak sortzen dira. Baita CC. C multzoak ere, hau da, *ánk.tan*, *yótz.ko*, *óint.kuk* tankera-koak. Bestalde, Bortzirietan eta Malerrekan behinik behin, herskari ezpain-

kariak irristari ere bilakatu dira kodan; cf. Arantzako *akáwtu* ‘akabatu’, *arráwtu* ‘arrapatu’, *eskáwtu* ‘eskapatu’, *illáwte* ‘hilabete’, *iráwzi* ‘irabazi’... Baita *eráwn* ‘eraman’ aldaerako sudurkari ezpainkaria ere¹⁷.

4.3. *u > o* eta *i > e* bilakatzeko joera nabari da Nafarroako mendebalean. Malerrekan, Basaburuan, Imotzen, Larraunen, Leitza-Goizueta eta Araitzen da irekitzeko joera hau azkarrena, Etxebarriak (1985: 129-130), Pagolak (1992-1: 91), Ibarrek (1995: 103-104) eta Azpiroz, Olano & Zubiri hiru-koteak ere erakutsi dutenez. Oiartzunen ez da *i > e* bilakaera nabari eta oso ahula da *u > o*: *diro* ‘diru’, *komon* ‘komun’, *ora / ua* ‘hura’, *porro* (*dozena*) ‘porru-’, *sokalde* ‘sukalde’, *soño* ‘soinu’, *zolo* ‘zulo’ dira liburuaren egileek (Fraile & Fraile 1996: 36) aipatu dituztenetako batzuk.

Antzeko egoera ikusi dut Lezon eta Hondarribian; cf. azken herri honetan Letamendiak eta Sagarzazuk (1992: 508) batu zituzten adibideak: *bi dí-ro*, *itxó bat* ‘itsu bat’, *kató bat*, *katillo bat*, *letxó bat* ‘letxuga bat’, *oláto bat* ‘olatu (= uhin) bat’, *ordobátak*, *sóño aundíya*, *zoló bat*... (ikus, gainera, Letamendia 1990: 44). Adibide hauek ikusita, baina, pentsa liteke *u > o* bilakaera hitzoina /-u/ dutenak /-o/ dutenekin nahastu izanaren ondorioz ere gerta daitekeela. Hizkera hauetan, jakina denez, /u-a/ zein /o-a/ biak bilakatu dira [ua], hau da, *báso*: *básua* bezala *buríu*: *burúa* (uste honen aldeko dira Hualde & Sagarzazu 1991: 144 eta Holmer 1964: 29, (46) oinoharra). Asimilazioa izan liteke beste batzuetan (cf. *komon*, *zolo*) bilakaeraren eragilea.

Aztergai nuen eremu osoan nabari da, gutxi-asko, *u > o* irekitzeko joera; cf. Igantzin jaso ditudan *berando*, *katillo*, *kato*, eremu zabalagoan ere (Baztanen, esate baterako) ezaguna den *zolo*... Ostera, Bortzirietan baizik ez dut aurkitu *i > e* bilakaera; cf. Arantzako *gereze* ‘gerezi’, *goroste* ‘gorosti’, *piñade* ‘pinadi’, (*ardo*) *zage* ‘zahagi’, *zartage* ‘zartagin’... Dena dela, Bortzirietan ere ez zait iruditu (?) maiztasun eta egonkortasun handikoa. Ez, behinik behin, hegoalderago (Mallerrekan bertan, esate baterako) bezain indartsua.

4.4. Singularreko 2. pertsonako adizkietan *y-* dago Nafarroa gehiengan; cf. Oiartzungo corpuseko *ya(i)z* ‘haiz’, *yitzan* ‘hintzen’, *yau* ‘hau’, *yaugu* ‘hau-gu’, *yaute* ‘haute’, *yua* ‘hoa’, *yuzen* ‘hindoan’, *ya(b)il* ‘habil’, *yabilien* ‘henbilen’, *yo(z)* ‘hago’, *yozen* ‘hengoan’, *yekiken / yekiñen* ‘henki(n)an’, *eon yai* ‘egon hadi’... Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 64), orokorra da ezaugarri hau egungo oiartzueran eta orokorra da, era berean, aztergai nuen eremu osoan.

4.5. Nafarroako eremu zabalean, *-it-* da Nor-Nori-Nork saileko adizkien pluralgilea (Irizar 1992a-1/2 eta 1992b). Eremu horrekin egiten dute bat, oro har behintzat, Hondarribiak, Irunek, Goizuetak eta Bortziriek; cf. Sagarzazuk (1994: 623) Hondarribian jasotako *ttiót* ‘dizkiot’, *tti(g)ú* ‘dizkigu’, *nittión* ‘nizkion’, *nittizun* ‘nizkizun’... Ostera, Lezon, Errenterian, Oiartzunen eta Aranon *-zki-* da pluralgilea. Oiartzungo corpusean behin baizik ez da ageri *-it-*, baina *-zki-* pluralgilearekin lehian dela bertan ere: *(i)zki / ttik*, *(i)zkin / ttin* (Fraile & Fraile 1996: 116). Dena dela, adibide gehiago ere jaso zituen Irizarrek (1992a-2: 374hh) Oiartzunen.

17. Jose Ignazio Hualderi nahi diot eskertu Bortzirietako sinkopaz zenbait argibide eman izana. Zehatzago azterten du berak gai hau laster ateratzekoa den liburu baten: *Euskal azentuak* [behin-behineko izenburua].

4.6. Nafarroako aldaera berezien artean, Hondarribiko *bulkatu* ‘bultzatu’, *gendu* ‘kendu’ eta *-oa-* bokal multzoaren aurrean *g-* garatu duen *gua* ‘hoa’ — baina *kendu*, *(y)ua* orokorrak ere badira Hondarribian— nahiko nituzke nabarmendu. Ostera, *oe*, *orain* gisakoak daude Errenteria-Irun bitarte guztian, Aranon eta Goizuetan, Malerreka eta Bortzirietako *guatze* ‘ohe’, *quartu* ‘ohartu’, *guan* ‘orain’ eta *guaye* ‘hoa’ —*gan* ‘joan’ ere bada Etxalarren— aldaera «nafarren» —*g-*dunak, alegia— ordez.

5. Euskal Herriko erdiguneko beste bereizgarri batzuk

Goiago (§ 3) ikusi dira ustez Euskal Herriko erdigunean egin diren berrikuntza zenbait. Antzinakoak diruditelako nioen, izkribu zaharretan agertzeaz gainera, oso eremu zabal eta trinkoa osatzen dutelako. Baina badira Euskal Herriko erdigunean —Hego Euskal Herriko erdigunean, gehienbat— garatutakoak diruditen beste berrikuntza batzuk. Oraintsuagokoak ematen dute hauek. Dokumentu idatzietan daukagu batzuetan horren froga, baina erdietsi duten eremua bera da, besteetan, berrikuntzen «berritasunaren» arrazoirik onena.

Izan ere, berrikuntzon artean badira, esate baterako, Bizkaiko ekialde osora zabaldutakoak. Eta, ostera, aspaldikotzat jo daitezkeen ezaugarriei begiratzen badiegu, mendebaleko eremuak multzo homogeneo samarra osatzen duela ikusiko dugu; Bizkaiak, Araba gehienak —Arabako ekialdeko hizkerak ez besteek, ziurrenera— eta Gipuzkoako Deba arroak osatzen duten multzoa (ezaugarri hauetako zenbaiten berri izateko, ikus Zuazo 1997: 89hh).

Baina, esan bezala, oraintsuagokoak izan daitezkeen berrikuntzetan hautsi egiten da mendebalaren batasuna: Bizkaiko sartaldea daukagu multzo batean eta Bizkaiko sartaldea eta Deba arroa, berriz, bestean. Bizkaiko bikoiztasuna dela eta, zeharo bat nator Kardaberazek *Cristiñau doctrinea*-n ezarri zuen mugarekin:

Bacust ondo, Bizcai guztico eusquera bat izan arren, verbaren batzuc ori (sic) batzuetan, besteac besteetan oi direala. Enzunaz icusi, edo icasi dot, Orozco ta Zeberioti Ochandianora, ta Plencia eta Machichaco aldeti Munguiara, ta onunz verba batzuc, edo esateco moduac banaro, edo diferenteac dituezala. (...) Durango ta Marquinati onunz beste moduric da (Lopetegui 1973-1: 454)

Gaurregun ere Bakio-Bermeo, Zornotza eta Otxandion barrena egin daitezkeen lerroak banatzen ditu, oro har behintzat, Bizkai barruko hizkuntza eremu biak eta, gaurregun ere, Lea-Artibai eskualdean eta Durangaldean da nabarmenena Euskal Herriko erdigune horretako berrikuntzen eragina.

Lapurdiko itsasaldean ere nabari da eragin hori eta, Nafarroari dagokionez, bertako mendebaleko eskualdeak sartzen dira ezaugarri isoglosa barruan. Gipuzkoaz den bezainbatean, aldiz, Goierri eta Toloserriko hegoaldea isoglosetatik kanpo azaltzen dira maiz. Ikus ditzagun, beraz, ezaugarri horietako zenbait, beti ere Ainhoa eta Idoia Frailek batutako corpusa oinarritzat dugula:

5.1. /i__+V/ ingurunean tartekatu ohi diren [j] tankerako epentesiak. Erabatekoa da Oiartzunen: *afa(r)iya*, *txerriya*, *komuniyo*, *naziyuak*, (*karri*) *ziyon*, *ardiyonek* ‘ardi honek’, *erriyontan* ‘herri honetan’, *aitzakiyura* ‘aitzakia hura’, *biyotzekua*, *biyurtu*, *eriyotzako*...

Isoglosa barruan sartzen da Bizkaiko ekialdea, Deba arro osoa eta Aramaio, Gipuzkoako iparraldea eta, dirudienez, Lapurdiko «kostatarra». Nafa-

rroari dagokionez, Bortziriak eta Sunbilla, Arano —baina ez Goizueta— eta Sakana daude isoglosa barruan.

Ostera, /u__+V/ ingurunean ez Oiartzunen ez aztergai nuen eremu osoan ez dago inolako epentesirik. Bonaparteren (1877: 152, 155 eta *Phon.*) arabera, Aranon, Goizuetan, Irunen eta Bortzirietan ziren *buruba*, *eskuba*, *zeruba* ebakerak —*uá* zein *ubá* jaso zituen Lezon ere— ez dira gaurregun ezagunak. Eremu honetan ez ezik, Euskal Herri gehiengan ere atzeraka egin du ezaugarri honek Bonaparteren garaitik hona (gaurregungo eremuaz, ikus Hualde 1996: 52).

5.2. Indartsua da asimilazio bustidura Oiartzunen (Fraile & Fraile 1996: 58hh): *n > ñ* eta *l > ll* ez ezik, *t > tt* ere bilakatzen da eta, bilakaera, 'j__V' ingurunean ez ezik, 'i__V' ingurunean ere, esate baterako, betetzen da. Horren adibide dira *biñaka*, *giñan*, *urdiña*; *ibilli*, *illuna*, *zintzillik*; *itturri*, *ofrezittu*, *serbittu*... Maileguetan ere bete da inoiz bustidura: *apetittua*, *gasoilla*, *guardia zibillak*... Bestalde, *billotsa* 'bildotsa', *billu* 'bildu' bezalako aldaera jakin batzuetan *-ild-* > *-ill-* bete da, baina egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 56), batez ere adineko hiztunen jardunean entzuten omen dira honelakoak.

Asimilazio bustidura Bizkaiko ekialdean, Gipuzkoa osoan, Lapurdiko «kostatarrean» eta, Nafarroari dagokionez, Bortziriak —Etxalarren izan ezik—, Bertizarana, Lantz, Ultzama, Atetz, Imotz eta Sakana bitartean —Burundan izan ezik— da ugaria.

Bustidura adierazkorra ere maiztasun handikoa da Oiartzunen (Fraile & Fraile 1996: 62, 66) eta honetan Gipuzkoako beste hizkera batzuetatik eta, batez ere, Bizkaikoetatik aldentzen da: *ardoxaliak*, *axala*, *beltxa*, *bette-bette iñak*, *dottore-dottore*, *errexka*, *juxtu-juxtu*, *moxkortu*, *nexka*, *Nikolaxek*, *polliki-polliki*, *puntta xorrotxa (...)* *ta xabala*, *puxka-puxka in*, *toldo xarren bat*, *ttakattaka*, *ttentte*, *ttiki*, *xintxo*...

5.3. Ablatiboko *-tik*, motibatiboko *-gatik* eta partitibo zein partizipioetako *-(r)ik* morfemez gainera, *-tikan*, *-gatican*, *-(r)ikan* ere badira eta sarri azaltzen dira hauek ere Oiartzungo corpusean:

- a. *barrendikan*, *emendikan*, *geoztikan*, *Irundikan*, *itxetikan*, *petxutikan*...
- b. (*gauz*) *askongatican*, (*motibo*) *aundiyanatican*, *jornalangatican*, *zer(ga)ti-kan*...
- c. *beste(r)ikan*, *dud(ar)ikan*, *gogo(r)ikan*, *txarrikan*...
- d. (*arropak ezin*) *ze(r)atu(r)ikan*, *ixillikan* (*zaude*)...

Gipuzkoako iparralde osoan —Mendaro eta Elgoibar barne— eta Nafarroako ipar-mendebalean —Aranon, Goizuetan, Leitzan, Bortzirietan, Sunbillan eta Malerrekan, esate baterako— daude aldaera hauek eta, aipatutako ez gain, *-(e)larikan* (> *-(e)likan*) ere bada Hondarribian, Irunen, Bortzirietan eta Sunbillan¹⁸.

18. Mitxelena (1950: 91) zioenez, *-tikanen*, *-gandikanen*, *-gaticanen*, *-(r)ikanen* ere baziren Erreterian aukeran: *lenbiziko andriagandikanen ba(d)u semia*. Gogora dezagun *icusiricanen*, *oraindicanen* aldaerak jo zituela Larramendik ere (1969: 301) Hondarribiko bereizgarritzat, baina *wándikanen* bezalako aldaeraren bat edo beste gorabehera, ez dira arruntak dagoeneko (cf. Sagarzazu 1994: 592). Erreterian ere ez dira erabiltzen nire berriemaileen arabera. Lezon eta, batez ere, Pasai Donibanen entzuten da gaurregun *-tikanen*.

Aldaera hauek (*-(r)ikan*, *-(e)larikan*...) badakit Ipar Euskal Herrian ere badirena, baina ez zein ote den euren maiztasuna eta eremu zehatza.

5.4. Nor-Nori-Nork sailean **-i-* erroa da Oiartzungo aukera bakarra: *(d)izut, (d)igu, di(d)azu, di(d)ate, di(g)ute...* Giputz euskaran —Deba arrotik ekialderakoan, alegia— eta Nafarroako eremu zabalean egin da aukera hau. Nafarroari dagokionez, Bortziriak, Bertizarana, Anue, Atetz, Imotz eta Sakana gehiena —Etxarri-Aranatz, Ergoiena eta Burunda izan ezik— daude isoglosa barruan. Mendebalari dagokionez, berriz, Mendaro eta Elgoibarraino iritsi da (Irizar 1991-1). Lapurdin, datiboa 3. pertsona denean erabiltzen da gehienbat erro hau.

5.5. Nor-Nori-Nork saileko adizkien ordeztan Nor-Nork sailekoak erabiltzen dira orainaldian Oiartzunen. Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 118), datiboa ‘niri’, ‘zuri’, ‘zuei’ denean gertatzen da hori:

- a. *pena ematen nau*
- b. *kantatuko zattut*
- c. *axe(r)iyak iesi ingo zattu*
- d. *alkolak enau bate ongi itten*

Baina liburuaren egileek aipatutako kasuetan ez ezik, objektua plurala bada, datiboa ‘guri’ denean ere gertatzen da, nonbait, txandakatzea: *gattuzu* ‘dizkiguzu’, *gattuzute* ‘dizkiguzute’ (cf. 116. or. taula).

Errenteria-Irun bitarteko hizkeretan, Lapurdiko hegomendebaleko oso eremu zabalean (Basusarri, Ahetze, Senpere barruan direla) eta Nafarroako Urdazubi, Zugarramurdi, Baztan, Bertizarana eta Bortzirietan ere betetzen da, aldeak alde, txandakatze hau. Eremu barrukoak dira Donostia —Igeldo barne— eta Usurbil eta Hernanin bertan ere nabari omen da gazteriarren jarduneari (zehatzago: Irizar 1981-2: 359, 1991-1 eta 1992a-1/2)¹⁹. Eremutik kanpo daude, ostera, Arano eta Goizueta.

Oiartzunen, dena dela, oso nahasia da egoera. Nor-Nori sailekoen ordeztan ere erabiltzen dira batzuetan Nor-Nork eta are Nor-Nori-Nork sailekoak (Fraile & Fraile 1996: 112-113):

- a. *beste mordoxka bat igual torriko zattu* (160)
- b. *iru(d)itze nau nei emen ola exeita eotia alperrik eotia!* (193)
- c. *nei uretan seittuan gosia jartzen nau* (78)
- d. *nei pasatu izandu (d)it* (113)

Hondarribian eta Irunen ere badira nahasketa hauek (zehatzago: Letamendia & Sagarzazu 1992: 527-528, Sagarzazu 1994: 620 eta Irizar 1992a-2), baina ez —edo ez, behintzat, hain nabarmen— aztergai nuen eremuko gainontzeko hizkeretan.

Euskal Herriko beste leku askotan legez, Nor-Nork sailekoen ordeztan Nor-Nori-Nork sailekoak ere erruz erabiltzen dira Oiartzunen (Fraile & Fraile 1996: 111):

- a. *fiestetan ola bendakin ikusten ba(di)yote*
- b. *ge(r)o kartzela(ra) e(ra)man tzi(d)aten*

19. Beste hizkera batzuetan ere badira honen aztarnak; Lekeition bertan, esate baterako (cf. Hualde, Elordieta & Elordieta 1994: 125-126).

Lezon eta Hondarribian ere behinik behin oso zabalduta dago joera hau, baina ez dirudi hain nabarmena aztergai nuen eremuko gainontzeko hizkeretan (zehatzago: Irizar 1992a-2).

5.6. Perpaus hautakarietako *ala* / *edo* > *edo* bilakatu da Gipuzkoa eta Nafarroa gehienez (isoglosa barruan dago, esate baterako, Aezkoa bera; I. Caminok a. e.). Gipuzkoari dagokionez, Deba arroa eta, nola edo hala, Urola eta Goierriko eskualdeak dira salbuespena. Oiartzungo corpusean, dena dela, behin bederen agertzen da *ala*:

amaiketakua zèkin ekarrizu, ogiyakin ala talukiñ? (174)

Baina *edo* (> (*r*)*o*) dago besteetan; hala nola

a. *mutillak (e)sango ziyon, ametitzen al nazu o ez?* (163)

b. *i zer yaiz, ortzakin jayua (e)ro?* (213)

6. *Euskara giputzaren bereizgarriak*

Badira giputzat jo ditzakegun ezaugarriak, nahiz eta batzuetan eremu hori gaintitu ere egiten duten. Deba arrora, Lea-Artibai eskualdera eta Durangaldera iritsi dira lantzean behin eta baita Gipuzkoatik gertuko hizkera nafar batzuetara ere. Giputzat dauzkadan ezaugarri hauek guztiok azaltzen dira, gutxi-asko, Oiartzungo corpusean eta ezagunak dira, era berean, Errenteria-Irun bitarteko gainontzeko hizkeretan. Hona ezaugarrien zerrenda:

6.1. *izan*-en erroak *-a* (*gara*, *zara*) zein giputz euskararen erabateko bihurtu den *-e* (*gera*, *zera*) dira Oiartzunen. Lehia bera dago Errenteria-Irun bitarteko eremu guztian, baina Errenterian, Lezon eta Hondarribian behinik behin, *-e* da ohikoena. Aranon eta Areson ere *-e* dago, baina *-a* Goizuetan, Leitzan eta Bortzirietan (Leitzar, Arano eta Goizuetarako, ikus Azpiroz, Olano & Zubiri).

6.2. *edun*-en erroa *-u* (*dut*, *dugu*) da gehienetan, baina *-e* giputza ere (*det*, *dezu*) erabiltzen da Oiartzunen. Hitanoan, dena dela, *-u* baizik ez da goela ematen du.

Errenterian ohikoagoa dirudi *-e* erroak. Lezo-Irun bitartean, ostera, *-u* erroak dirudi jardun arrunteko aukera, *-e* ere —hizkera jasoan?— ezaguna den arren (honetaz, Sagarzazu 1994: 591, (3) oinoharra). Aranon, Goizuetan, Leitzan (baina *-e* dago Areson) eta Bortzirietan *-u* (> *-o*) da aukera bakarra (Leitzar, Arano eta Goizuetarako, ikus Azpiroz, Olano & Zubiri).

6.3. **j*-ren ebakera [x] da Oiartzunen (Fraile & Fraile 1996: 63). Ebakera bera dago Errenteria-Irun bitarte guztian, Aranon eta Areson, baina [j] Goizuetan, Leitzan eta Bortzirietan (cf. Azpiroz, Olano & Zubiri).

6.4. Liburuaren egileek diotenez (Fraile & Fraile 1996: 63-64), *f* > *p* bilakaera oso indartsua izan da Oiartzunen, gaurko gazteriaren artean atzeraka egin duen arren. Horren lekuko dira corpus honetako *alproja*, *apa(r)i*, *apiziyua*, *garrapoya*, *opiziyo*, *pallo*, *palta*, *paltsu*, *panparroi*, *pesta*, *poxpolu*, *praille*, *pranko*, *prejittu*, *prexkua*, *prontala*, *pulamentu*... Bilakaera honek gaurregun ere adineko oiartzuarrengan daukan indarraren erakusgarri ezin hobea da *putiñ ittea* 'footing egitea' aldaera, oso mailegu berria dena.

Joera bera dago Errenterian, Aranon eta Goizuetan: adineko hiztunek /p/, gazteek /f/. Hondarribian eta Bortzirietan, ostera, adin handiko hiztunen artean ere ez da /p/ horren aztarnarik. Holmerren (1964) lanabesetan, kasu bakar baten baizik ez da ageri *f* / *p* txandakatzea Arantzan: *firrilda* / *pirrilda* (orok. 'gurpil').

6.5. Gipuzkoan dirudi $d > r$ bilakaerak indartsuen eta Oiartzun bera da horren adibide, nahiz eta liburuaren egileek nabarmentzen dutenez (Fraile & Fraile 1996: 54-55), atzeraka omen doan gaurregun. Adineko hiztunen jardunean, ostera, zeharo arruntak dira bilakaera hori izan duten aldaerak: *barria* ‘badira’, *bire* ‘bide’, *eraiya* ‘edaria’, *(e)ro* ‘edo’, *giraiya* ‘gidaria’, *inbiriya* ‘inbidia’, *iriya* ‘idia’, *lori* ‘lodi’, *seniriak* ‘senideak’, *soldaro* ‘soldado’...

Indar handiz betetzen da Gipuzkoatik gertuko hizkera bizkaitarretan (Ondarroa, Lekeitio, Ermua...) eta Aranon, Goizuetan eta Bortzirietan ere ez da ezezaguna. Ezta, dirudienez, Baztanen bertan ere (Salaburu 1984-1: 245 eta 1984-2: 137).

6.6. Izenordainen sailean *nor / zein > zein* gertatu da Oiartzunen:

- a. *orduan ezt(ag)o zeñek aguantatu* (159)
- b. *zeñekin? Yonekin?* (196)
- c. *au zeñekiñ torri da mutil kozkor au?* (217)

Neutralizatzeko joera bera aurkitu dut Errenteria-Irun bitarte guztian, Aranon eta Goizuetan, baina biak bereizten dira Bortzirietan.

6.7. Oiartzungo corpusean *joan* aditzeko *nijua* ‘noa’, *dijua* ‘doa’, *dijuz / dijuzte* ‘doaz’ adizkiak azaltzen dira. Errenteria-Irun bitarteko eremu osora eta Aranora ere hedatu dira, baina ez Goizuetan eta Bortzirietara.

6.8. Guztiz ohikoa da *al* galdera partikula Oiartzungo corpusean:

- a. *o(r)i ez al dakizu nun dan?* (157)
- b. *mutillak (e)sango ziyon, ametitzen al nazu o ez?* (163)
- c. *Xenpelarren arreba zarrena ez al tzen u(r)a?* (166)

Errenteria-Irun bitarteko eremu osora, Arano eta Goizuetara ere hedatu da, baina ez Bortzirietara.

7. Ipar Euskal Herriko ezaugarriak

Gorago (§ 5.5) aipatu da Errenteria-Irun bitartean den eta Lapurdiko eremu zabalean ere baden Nor-Nori-Nork eta Nor-Nork sailen arteko txandakatzeta. Gorago (§ 2.16) aipatu da, era berean, Donibane-Lohizune aldeko antzinako azentuak Bidasoa arroko hizkeretan gaurregun dirauenarekin zeukan antzekotasuna eta aztergai nuen eremuko hizkerak Lapurdikoekin harremanetan jar ditzaketen beste zenbait ezaugarri ere erakutsi nahiko nituzke jarraian:

7.1. Denbora perpausetan ‘aditza + *arte / bitarte*’ gisakoak dira Oiartzungo corpuseko ohiko aukerak:

- a. *laneko gauza zen bittarte ongi* (137)
- b. *kamiyu in tzen arte* (166)

Baina, behin horratik, Ipar Euskal Herrian ezaguna den *-ino* morfema ere azaltzen da:

- a. *arek (e)saten tzun ba (...) aurra beakin zuiño, ama orrek izugarritzko sustantziya zakala aurra in arte* (190)

Gaurregungo jardunean ezezaguna da aukera hau, hala Oiartzunen nola aztergai izan dudan eremu osoan. Baina baliteke ezaguna izana aspaldi. Nikolas Alzolak (1994: 13) Irunen jaso zuen adibide hau izan liteke beste froga bat²⁰:

20. Iragan garaiei bagagozkie, hona Isasti lezoarraren errefracuan azaltzen dena: *agoac bero deño gal-da* ‘la masa mientras se calienta (tiene) calda’.

Jangoikuak emantziyon penitentziya mundua deiño alaxe segitzeko

7.2. Ipar Euskal Herrian ohikoa da neutroak diren perpausetan *ba-*eranstejo joera; cf. *gizonak bi seme bazituen* (perpaus neutroa) / *gizonak bi seme zituen* (perpaus markatua: «bi seme» zituen eta ez, esate baterako, «bi alaba»)²¹.

Baliteke Hego Euskal Herrian ere —mugatik gertuko hizkeretan, behinik behin— ezaguna izatea jokabide hau, nahiz eta eskura dauzkadan adibideak nahi bezain garbiak ez diren²². Oiartzungo corpusean —eta berdin Errenteria-Irun bitarteko gainontzeko hizkeretan— ez da honelakorik, baina itxura hori (?) duen adibide bat behintzat agertzen da (Fraile & Fraile 1996: 168):

ta zortzi seme-alaba izandu (di)ttugu, bat aingeru illa badugu

Aipatu diren ezaugarri bi hauetaz gainera, eta Oiartzun eta Lapurdiren hurbiltasuna gorabehera, ez da mugaz handiko hizkeren beste ezaugarriarik ageri. Ezta Bortzirietan ezagunak diren hauek ere:

7.3. Sudurkari aurreko *o > u* bilakaera ez da Errenteria-Irun bitartean nabari, Hego Euskal Herriko oso eremu zabalean hedatu den eta Oiartzungo corpusean ere azaltzen den *nun* (eta *nunbatte*) bezalako adibideren bat edo beste alde batera utzita. Erakusleetan ere, esate baterako, *onek* tankerakoak daude Oiartzunen. Holmerrek (1964) *únak* ‘onak’ (14. or.) eta *untan* ‘honetan’ (27) entzun zituen Hondarribian eta are *gizun* ere (14) Errenterian (eta Zarautzen). Oraindik orain, Letamendiak ere (1990: 44) *gabuntan* ‘gau honetan’ eta *tenóri untan* ‘tenore honetan’ jaso ditu Hondarribian, baina Sagartzazuren arabera (a. e.), aldaera horiek ez omen dira batera ohikoak hango solasean.

Aranon eta Goizuetan ere ez da bilakaera hau nabari, baina bai Bortzirietan; cf. *unek* ‘honek’, *untan* ‘honetan’ tankerako erakusleak.

7.4. Adlatiboan ez dago *-rat*, *-ganat*, *-t(z)erat* gisakorik. Ostera, Bortzirietan —Beran eta Etxalarren— ezaguna da aukera hau; cf. Beran jaso ditudan *errekarat*, *fnalerat*, *ekenganat* ‘haiengana’, *dominatzerat*, *yaterat*..., gorago (§ 2.7) aipatutako *unat*, *arat* eta Nafarroako beste hizkera batzuetan ere ezaguna den *gañerat*.

7.5. Ez dago *-iten* morfema daukan aditzizenik²³. Ostera, jakin ahal izan dudanez, Leitza-Goizueta (Azpiroz, Olano & Zubiri), Bortziriak, Basaburu Ttikian eta Zubietan (Malerreka) behinik behin ezagunak dira *eamatten* (<eramaiten), *egotten* (<egoiten) eta *ematten* (<emaiten). Bortzirietan *erratten* / *erraiten* (Etxalar), *izatten* / *izaiten* (Etxalar) ere badira.

21. Honetaz zehatzago: Oihartzabal 1984: 365hh eta Rebuschi 1983: 35.

22. Hor da, dena dela, Mitxelenak (1988 [1953]: 250) Izaban jasotako *ni(k) badizu(t) urte ánitx*. Arantzan (Bortziriak) *itxi orrek battik bi ate* ‘etxe horrek badizkik bi ate’ jaso nuen neutroa zirudien perpausetan eta, ostera, *ez, ezttik bi ate, iru ttik* jaso nuen jarraian, *ba-*gabe beraz, *iru* zelako galdegaia. Beran ere *kato bat badut* jaso nuen neutroa zirudien perpausetan eta merezi luke, beraz, mugatik gertuko hizkeren jokabidea hobeto aztertzea.

23. Mitxelenak (1950: 91), dena dela, morfema horrekin lotu zituen Errenteriako *e(g)oyera* ‘estado, situación’, *esayera* ‘dicho’, *izayera* ‘modo de ser’, *jarduyera* ‘trato’ eta *juayera* ‘ida’. Bost aditz hauek —bostak ere *-n* batez amaitzen direnak— aurkitu zuen *-yera* (orok. *-(k)era*) berezi hori. Bost aldaera horietarik *esayera* eta *izayera* baizik ez ditut jaso nik Errenterian eta Hondarribian ere ba omen da *esayéra* (Sagartzazuk a. e.)

ONDORIOAK

Ainhoa eta Idoia Frailek jasotako corpusean oinarrituta, oiartzueran betetzen diren erregela eta egiten diren aukeren artean, berrogeita hamar izan ditut aztergai edo, behinik behin, aipagai. Jakina, oiartzuera gainontzeko hizkeren artean kokatzeko egokienak iruditu zaizkidanak izan ditut soil-soilik mintzagai. Eta ezaugarri horiek ondorio hauetara ekarri naute.

1. Lehenengo eta behin, isoglosak ez doaz denak mendebaletik ekialdera edo ipar-mendebaletik hegoekialdera, Bonaparteren sailkapenak iradokitzen duen eta orain arte aho batez ontzat eman izan den bezala. Norabide hori dute, bai, askok eta askok, baina bestelakoak ere badira, eta ugari dira hauek ere.

Euskal Herriko erdiguneko oso eremu zabalean hedatu diren batzuk aurkeztu ditut 3. multzoan, Euskal Herriko erdiguneko eremu txikiagoan hedatu diren beste batzuk aurkeztu ditut 5. multzoan, euskara nafarraren bereizgarri diruditenak aurkeztu ditut 4. multzoan eta euskara giputzaren bereizgarri diruditenak 6. multzoan. Eragin horiek guztiak izan dituzte indar handiagoz edo txikiagoz Errenteria-Irun bitarteko hizkerak eta eragin horien guztien batuketak ematen die hizkera hauei euren aparteko nortasuna, Gipuzkoako gainontzekoetatik bereizten dituenak.

Bizkai-Gipuzkoetako hizkerak gainontzekoetatik banatzen dituzten ezaugarriak ere aurkeztu dira 1. eta 2. multzoetan eta, horien arabera, tarteko eremuan azaltzen dira Errenteria-Irun alderdikoak. Bizkai-Gipuzkoetakoekin batzen dituztenak banatzen dituztenak baino ugariago dira, dena dela.

Iparraldeko hizkeretik loturarik ba ote zuten ere begiratu dut eta, 7. multzoan bildu diren ezaugarri apurrek erakusten dutenez, guztiz ahula da lotura hori. Hegoaldekoak dira bete-betean Errenteria-Irun bitarteko hizkerak, Arano eta Goizuetakoak. Bortzirietakoak ere bai, nahiz eta hemen —Beran eta Etxalarren batez ere— sendoagoak diren mugaz handiko hizkeretik kidetasunak.

2. Errenteria-Irun bitarteko hizkerak alde askotako eraginak izan dituztela esan dut eta, *eraginen aldeak* erakutsi ondoren, *eraginen aldiez* ere nahiko nuke zer edo zer aipatu.

Kontuan izan behar dugu lehenengo eta behin, Errenteria-Irun bitarteko herriak Baionako Elizbarrutikoak izan zirela 16. mendera arte, harik eta Gaztelako Felipe II erregeak 1566an handik askatu eta Iruñekoari lotu zizkion arte. Sarri esan izan da elizbarrutiak ez direla halabeharrez sortutakoak eta izango ziren, beraz, herri hauek Baionakoari eransteko arrazoiak. Horrekin izan lezakete zerikusia 3. multzoan ikusitako ezaugarriek, alegia Lapurdin, Nafarroa Beherean eta Nafarroa Garai gehiengan direnak eta Errenteria-Irun bitartean ere badirenak, baina ez —edo ez, behintzat, bizitasun handiz— Gipuzkoako gainontzeko hizkeretan.

Horrekin izan lezakete, era berean, zerikusia 4. multzoan ikusitako ezaugarriek, alegia Nafarroako bereizgarri diruditenak eta Errenteria-Irun bitartean ere badirenak, baina ez Gipuzkoako gainontzeko hizkeretan.

Behin 16. menderaz gero, Lapurdiko hegomendebalean, Gipuzkoan eta Bizkaiko ekialdean izan da euskararen aldeko jarrera biziena eta emankorrena²⁴. Ez da, beraz, harrizkoa zenbait ezaugarri eremu horretan eta eremu

24. Zuberoan ere bai, baina herrialde honek hein handi baten bere gisa eta besteengandik bereiz jokatu duela begitantzen zait.

horren aldamenetan hedatu izana. 5. multzoan erakutsi dira ezaugarri horiek eta denak betetzen dira Erreterria-Irun bitartean.

18. mendetik aurrera, berriz, Gipuzkoak berak eta, zehatzago, Beterrik eta Toloserriak izan dute euskara gaietan lehentasuna eta, nonbait ere, lehentasun horren ondorioa da 6. multzoan ikusi diren ezaugarriak Erreterria-Irun eremura ere hedatuz joana edo, dagoeneko, zeharo hedatu izana.

Dakigula, hauexek dira aztergai genuen eremuan izan diren *eragin aldiak* eta eragin aldion hurrenkera ezagututa azal daiteke zenbait ezaugarriren atzerakada eta beste zenbaiten aurrerakada. Pentsatzekoa denez, Nafarroarekin eta Lapurdirekin batzen zituztenek eta antzinako hartu-emanen lekuko zirenek egin dute atzera eta, aldiz, Gipuzkoarekin batzen dituztenek eta oraintsuagoko hartu-emanen lekuko direnek egin dute aurrera. Honen adibide izan liteke Larramendik 18. mende erdialdera Oiartzunen jaso zuen gerroaldiko *-en* (> *in*) morfemaren ordez mende bat beranduago Bonapartek *-go* jaso izana²⁵.

Eskualde honetan gaurregun egiten den hizkerak ere argi eta garbi salatzen du aldakuntzaren nondik-norakoa. Bertan nabari diren lehia zenbait dira horren salatzaile:

- (1) *izan*-en 3. pertsona singularreko *-e* / *-a* lehia (*den* / *dan*).
- (2) *izan*-en *-a* / *-e* erroen arteko lehia (*gara* / *gera*).
- (3) *edun*-en *-u* / *-e* erroen arteko lehia (*dut* / *det*).
- (4) Trinkoen iraganaldiko *-a* / *-e* erroen arteko lehia (*zabilen* / *zebillen*).
- (5) Nor-Nori-Nork saileko *-it* / *-zki* pluralgileen arteko lehia (*dittiot* / *dizkiot*).
- (6) *ongi*, *obeki* / *ondo*, *obeto* aldaeren arteko lehia.

Baina hizkuntzaren beraren lekukotasunekin batera, hiztunen adierazpen zehatzak ere baditugu eta hauek ere bete-betea salatzen dute aldakuntzen nondik-norakoa. Arestian —(4) oinoharrean— aipatutako Mitxelenaren hitzak ekarriko ditut bere osotasunean lehenbizi:

Siempre había pensado (...) que la mezcla de alto-navarro y guipuzcoano que se observa en el habla de R[entería] se explicaba por una penetración continua de formas guipuzcoanas en el primitivo fondo navarro. Esto es cierto, sin duda, en nuestros días: *den* y *zen*, p. ej., tienden a ser sustituidos por *dan* y *zan* (Mitxelena 1950: 94).

Erreterrian zen *edun*-en *-u* / *-e* erroen arteko lehiak Mitxelenak berak Irizarri esandakoa da honako hau:

Para mí las formas son *dut*, etc. En cuanto a *det*, la diferencia es ante todo de sexo. No se lo he oído *jamás* a una mujer. En mi tiempo, los niños de ambos sexos empezaban por *dut*, y se pasaban a *det*, en estilo un tanto solemne, por influencia de hombres mayores. La impresión es que en formas contractas siempre se dice, aun por hombres, *eitteut*, *-euk*, *-euzu*, etc. (Irizar 1981-2: 44)

Beste hau ere esan zuen Mitxelenak:

25. Dena dela, *-go* agertzen da 18. mende berekoa (1778) den Roke Salazar Hondarribikoaren predikuan (Letamendia & Sagarzazu 1992: 528).

Erreteriarra zen Xenpelar, eta Oiartzun aldeko erreteriarra: *det*, *zan* eta *zebillen* usatuko zizkizun haatik kantulanean, lagunarteko *dut*, *zen* eta *zabilleen* ordez (Mitxelena 1978: 471).

Fernando Artolaren hurrengo aipuan Eliza jotzen da gipuzkeraren ezaugarriak zabaltzeko eragileetakotzat. Hauxe zioen *edun*-en adizkietako *-e*- erroz ziharduela:

Portu aldi horretan (...) *du*, *dut*, *badugu*. Elizan, «Sinisten *det* Jaungoiko Aita guztiz poderoso». Ta, orain *dut* esan bihar dela agindu duténian *Sinisten det*, *sinisten det!* goyerritárrak bezela (Artola 1981: 301).

Bestalde, Irungo Nor-Nori-Nork saileko *-it-* pluralgilea atzeraka eta *-zki-* aurreraka zihola ohartu zen Irizar. 20. mende hasieran Azkuek eta Bähr-ek jasotako argibideak hirurogei bat urte beranduago jasotakoekin alderatu ondoren ikusi zuen hori. Gaurregun Bidasoa ibai ertzeko hiztunen solasean omen dago indartsuen *-it-* eta Koldo Artolak alderdi horretako lekuko bati entzundakoa aipatu zuen Irizarrek:

Berak dioenez —zioen Koldo Artolak—, bere aitak eta amak *nittion / zittion* eta gisa bereko erak erabiltzen zituzten, bera gaztetxo zelarik, Lapizen —Irungo auzoa— eta Irunen, oro har ere, ia euskara baizik egiten ez omen zen garai hartan, era hauek guztiz arruntak zirelarik. Orain bertan ere Pausun horrelakoak erabiltzen direla dio.

Gaurregun, aldiz, Irungo zenbait auzotan erabiltzen diren *nizkion / zizkion* eta gipuzkerakoak diren hauen gisako erak geroago joan omen dira sartuz, ikastola, telebista eta gainerako komunikabide eta abarren eraginez (Irizar 1992a-2: 386).

Aipu honetan Fernando Artolak nabarmendu zuen Elizaren ordez, irakaskuntza eta hedabideak jotzen dira aldakuntzaren eragiletzat eta, zalantzarik gabe, euskararen egoera zeharo aldatu eta euskararen mendez mendeko bilakaera geldu samarra zeharo bizitu dute eragile berri hauek. Eta hitzak hizpidea dakarrenez, esan dezadan euskara batua dela gehienbat irakaskuntzan eta hedabideetan zabaldu dena eta garbi dago euskara batuaren izenean eta haren babesean aukera jakin batzuei eman ohi zaiela lehentasuna, beste batzuei ateak itxi zaizkien bitartean.

Mitxelenaren aipuei helduaz, bere gaztaroan —1915ean sortua zen— soil-soilik gizezkoen jardunean, eta jardun jasoan gainera, Erreterian gertatzen zena, zabalduagoa dago gaurregun. Erreterian batik bat, baina baita Oiartzunen bertan ere, ez dirudi sexuak *dut / det* hautatzeko orduan zerikusirik daukanik, gizezkoek zein andrazkoek erabiltzen dituzte eta. Baliteke, ordea, jardunaren jasotasunak bere eragina izatea eta bat-bateko jarduneko forma laburtuetan —Mitxelenak aipatutako *eitteut* ‘egiten dut’ tankerakoe-tan— gaurregun ere *-u-* erroa hobestea. Erro horixe da, era berean, aztergai nuen Oiartzungo corpusean zein Irizarren (1992a-2) bilduman hitano alokutiboetan —lagunarteko hizkeran, beraz— zeharo nagusitzen dena. Bestalde, bertan —nolabaiteko hizkera jasoan— ez ezik, badirudi hizkera lauan ere erabiltzen direla *zan* eta *zebillen* tankerakoak gaurregun Oiartzunen eta zer esanik ez Erreterian.

Laburbilduz, Gipuzkoako gainontzeko hizkeretatik hurbilago azaltzen dira gaurregungo Erreteria-Irun bitartekoak. Gipuzkoarekin batzen dituzten ezaugarriak doaz aurreraka eta Nafarroarekin eta Lapurdirekin batzen zi-

tuztenak, aldiz, atzeraka. Gorago esan den bezala, bereizgarri giputz guztiak ere hedatuz doaz —edo dagoeneko hedatu dira— bertara.

3. Aurkeztu diren berrogeita hamar ezaugarriek Bonaparteren «Gipuzkoako goinafarrera» homogenea eta berbera ez dela ikusteko ere balio izan dute. Lezo eta Erreterria azaltzen dira multzo batean, Irun eta Hondarribia bestean eta Oiartzun bien erdian. Lezon eta, batez ere, Erreterrian da nabarmenena gipuzkeraren eragina eta apalagoa, aldiz, Irunen eta Hondarribian²⁶.

Hizkuntzaz kanpoko indarretan dago, nonbait, honen arrazoia. Gune autonomo samarra izan da eta da Irun; erabat Donostiari begira eta erabat Donostiaren mende egon ez dena. Irunen beraren inguruan ibili dira eta dabil-tza Hondarribia, Bortzirriak eta mugatik gertuko herri lapurtarrak ere hein batean eta, ostera, Donostiaren inguruan ibili dira eta dabil-tza Erreterria, Lezo eta Oiartzun.

Lezo, Oiartzun, Hondarribia eta Irunekin batera sailkatu zituen Bonapartek Arano eta Goizueta ere, baina Gipuzkoako herriengandik nahikoa bereiz azaltzen dira hauek biok gaurregun. Haiengandik ez ezik bata bestearengandik ere bereiz ditugu Arano eta Goizueta. Badirudi Hernanitik egon dela eta dagoela gertuago Arano eta bertako hizkeran ere nabari da gertutasun hori.

Nik ikusi dudana banaketa bera sumatu zuen Irizarrek ere (1992a-2: 377) eremu honetako aditza bildu zuenean, baina hizkera hauek guztiok sakonago aztertzen direnean neurtu ahalko da zuzenago eta zehatzago Irizarrek eta biok uste duguna²⁷. Dagoeneko ere, dena dela, Bonaparteren hizkuntza eremuen zatiketa zorrotza eta erabatekoa hemen ere desegokia gertatu dela esan dezakegu. Continuum dialektalaren adibide ona daukagu hizkera hauetan, hizkuntza eremu batetik besterako bidea bat-batekoa barik mailakatua eta etenik gabea dela garbi asko erakusten duena.

4. Eta Bonaparteren sailkapena aipatu denez gero, ez da beraren zorrotasuna eta erabatekotasuna nabarmendu nahiko nukeen alderdi bakarra. Bonaparteren sailkapenari lotuegi ibili gatzazkiola ere esan nahiko nuke, kontuan izan gabe kasurik onenean ere 1850-70 bitarteko egoerari dagokiola hura. Eta 'kasurik onenean' diot, Bonaparteren sailkapenak ere badituelako bere hutsak eta bere akatsak. Baina hutsak eta akatsak alde batera utzita, euskararen egoera ere oso aldatuta dago orduetik hona, «ondorio» hauetan behin eta berriro erakusten ahalegindu naizenez.

Azken bi edo hiru mendeotan Gipuzkoa izan dela aldaketen ardatza ere ahalegindu naiz erakusten eta, ikusi denez, ardatz horren inguruan ibili dira Bizkaiko ekialdeko eta, batez ere, Deba arroko herriak eta baita Nafarroako mendebaleko eskualdeak ere.

Kontuak kontu, zortzi euskalki ikusi zituen Bonapartek Hego Euskal Herrian: bizkaiera, gipuzkera, iparraldeko goinafarrera, hegoaldeko goinafarrera, lapurtera (Baztanen, Urdazubin eta Zugarramurdin), mendebaleko behenafarrera (Luzaiden eta Aezkoan), ekialdeko behenafarrera (Zaraitzun) eta

26. Lezori dagokionez, Irun eta Hondarribi aldera dagoen Gaintxurizketa auzoko hizkera Lezoko gainontzeoetatik nabarmen bereizten dela esan didate bertako berriemaileek aho batez.

27. Erreterria, Lezo, Hondarribi eta Irungoak daude oraindik ere azterkizun.

zuberera (Erronkarin). Nik neuk, gaurko egoera kontuan izanda, lau hizkuntza eremu nagusi bereiziko nituzke soil-soilik²⁸:

1. Arestian ‘mendebalekoa’ deitu dudana, eta Bonaparteren ‘bizkaiera’ bera dena; hau da, Bizkai osoa, Arabako eremu euskalduna eta Deba arroa — Elgoibar eta Mendaro barne— biltzen dituena.

2. ‘Erdialdekoa’ dei dezakeguna, eta Gipuzkoa gehienak —Deba arrotik ekialderakoak— eta Nafarroako Leitzaran, Araitz, Larraun, Basaburua —Handia zein Ttikia— eta Imotz eskualdeek osatzen dutena. Bat nator, beraz, Ibarak (1995, 1996) proposatutakoarekin.

3. ‘Nafarrera’ dei dezakeguna eta Bortziriak-Malerreka-Ultzama-Atetz le-roan abiatu eta Aezkoa bitarteko eremua hartzen duena. Ibararen (1995, 1996) proposamenekin ez ezik, bat nator, beraz, Caminok (1994) aezkeraren gainean proposatutakoarekin ere. Multzo honetan, eta ez lapurtera barruan, sartzen dut Baztango hizkera.

4. Zuberoari estu samar lotuta ibili diren Zaraitzu eta Erronkari ibarretako hizkerak eta, biak ere nortasun handikoak diren arren, multzo bakar baten bil ditzakegunak. ‘Ekialdeko nafarrera’ dei geniezaioke honi. Multzo hau, jakina, dialektologia historikoari dagokio, galduta dagoelako erronkaria eta galzorian zaraitzuera.

Bonapartek bezala, administrazioz Hego Euskal Herrikoak diren arren, hizkuntzaz Iparraldetik gertuago daudela Urdazubi, Zugarramurdi eta, batez ere, Luzaide uste dut nik ere; baina azken hau Garazirekin lotuko nuke eta ez Baigorriekin, Bonapartek bere sailkapenean egin zuenez. Dena dela, me-reziko luke hiru hizkera horien egungo egoera hobeto ezagutzea.

Hizkuntza eremuen mugak ez direla Bonapartek bere mapan ezarri zituen bezain zehatzak eta badirela hizkuntza eremu bi edo gehiagoren tarteko hizkerak esan dut arestian eta horietakoak dira, aldeak alde, Aezkoakoa, Sakanakoa —eta honen barruan guztiz status berezia duen Burundakoa— eta baita, hemen ikusi dugunez, Errenteria-Irun bitartekoak eta Aranokoa ere.

Gaurko egoera kontuan izanda, Bortziriak eta baita Goizuetan bera ere ‘nafarrera’ deitu dudana eremuan sartuko nituzke, baina ez, erabat behintzat, Errenteria-Irun bitartekoak eta Arano. Hona hemen horretarako ditudan arrazoiak, beti ere txosten honetan aurkeztutako ezaugarrietan oinarrituta:

(1) Aferesiak maiztasun handiagoa dauka Goizuetan eta Bortzirietan. Bat dator hauekin Arano ere.

(2) Sinkopak ere maiztasun handiagoa dauka Goizuetan eta Bortzirietan.

(3) Erdal *-on* amaieraren ordezkari Bizkai-Gipuzkoetako *-oi* zein Nafarroako *-on* daukagu Bortzirietan; *-oi* baizik ez beste haietan.

(4) *-rtz-* kontsonante multzoa eta *erran* aldaera daude Bortzirietan.

(5) *unat*, *arat* adizlagunak daude Bortzirietan.

(6) *ongi*, *obeki* baizik ez daude Goizuetan eta Bortzirietan.

(7) *-en* dago geroaldian Goizuetan (*-go* ere bai hemen) eta Bortzirietan.

(8) ‘ikusten ahal dut’ / ‘ez dut ikusten ahal’ egiturako ahalera perifrastikoak daude Bortzirietan.

(9) *-koz*, *-(e)lako*z aldaerak ohikoagoak dira Goizuetan eta, batez ere, Bortzirietan.

28. Beste nonbait aurkeztuko dira banaketa honen arrazoiak zehatzago. Txosten honetan barrena ere azaldu dira, dena dela, horietako zenbait.

(10) perpaus konpletiboetako *-(e)nik* ez dirudi Bortzirietan ugaria (?)

(11) *egin* indargarriak ere ez dirudi Bortzirietan ugaria (?)

(12) Bortzirietako lexikoan²⁹ Bizkai-Gipuzkoetatik eta Errenteria-Irun bitarteko hizkeretatik aldentzen diren *agitz* 'oso', *aitzin* 'aurre' eta *gibel* 'atze', *arotz* 'errementari' adierarekin eta *zurgin* 'arotz' adierarekin, *atorra* 'alkandorra', *aunitz* 'asko', *axturak* 'guraizeak', *buruilla* 'iraila', *eri* 'gaiso', *gabenara* 'saguzahar', *galdetu* 'eskatu' adierarekin, *gaztanb(e)ra* 'mamia', *illarra* 'babarruna, leikua' eta *illarbi(ri)bi* 'illa', *irri* 'barre', *iruetanogei* 'hirurogei' eta *lauetanogei* 'laurogei', *karrika* 'kale', *pa(ra)tu* 'jarri', *sagarroi* 'triku', *sarri* 'laster', *sobera* 'gehiegi', *uriña* 'koipea... Bortzirietan, era berean, *bi(g)arri* 'belarri', *gazna* 'gazta', *gutti* 'gutxi', *matel* 'masail / matrail', *nabala* 'laba(i)na', *ni(g)ar* 'negar', *zinaurri* zein *txiñurri* (*txingurri* tankerakoak, *-ng-* kontsonante multzoa dutenak, besteetan) eta *g-* duten *guañ* 'orain', *quartu* 'ohartu', *guatze* 'ohe', *guaye* 'hoa' aldaerak daude.

Bestalde, bereizgarri 'giputzak' ez dira Bortzirietara hedatu eta Goizuetara ere ez beti. Hona ezaugarrien zerrenda:

(13) *izan*-en *-a-* erroa da aukera bakarra Goizuetan eta Bortzirietan.

(14) **j*-ren ebakera [j] da Goizuetan eta Bortzirietan.

(15) *f > p* ez da Bortzirietan nabari.

(16) *nor / zein* izenordainak ez dira Bortzirietan nahasi.

(17) *dijoa* tankerako adizkiak ez dira Bortzirietara eta Goizuetara iritsi.

(18) *al* galdera partikula ez da Bortzirietara iritsi.

Ipar Euskal Herriarekiko hurbiltasuna ere nabarmenagoa da Bortzirietan:

(19) *o > u* bilakaera izan duten aldaerak daude.

(20) Adlatiboan *-rat*, *-ganat*, *-t(z)erat* daude Beran eta Etxalarren aukeretan.

(21) Aditzizenetako *-iten* ez da zeharo galdu Bortzirietan eta Goizuetan bertan ere bada *egon*, *eman* eta *eraman* aditzetan.

ARGIBIDE BIBLIOGRAFIKOAK

- ALZOLA, Nikolas [«Valentín Berriochoa»] (arg.). 1962. «El vocabulario inédito de Zubigar», *Euskera*, 7: 43-54
- ALZOLA, Nikolas. 1994. *Euskaraz, Irunen barrena*, Irun, Luma
- ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA. *EAEL. Euskalerriko Atlas Etnolinguistikoa* (2 liburuki), Donostia, 1984-90
- ARTOLA, Fernando. 1981. «Hondarrabiko mintzairan bertako berri», *Euskera*, 26-1: 295-303
- AZPIROZ, T., OLANO, M. & ZUBIRI, J. J. [Arano-Goizueta-Areso-Leitza aldeko hizkerak]. Argitaragabea
- BONAPARTE, Louis-Lucien. 1863. *Carte des sept provinces basques, montrant la délimitation actuelle de l'euscara*, Londres
- BONAPARTE, Louis-Lucien. 1869. *Le verbe basque en tableaux*, Londres. Berrarg. Euskaltzaindia, *Opera omnia vasconice* (I), Bilbo, 1991, 175-442

29. Zerrenda hau osatzeko, Holmerrek (1964) batutako hiztegien oinarritu naiz. Hiztegi horretan oinarritu eta hiztegi horretara mugatu, gehiago ere badirelako Bortzirietatik Errenteria-Irun bitartera aldatzen diren hitzak eta aldaerak. Baliteke, bestalde, Holmerrek Bortzirietan baizik jaso ez zituen hitzetako batzuk Irunen eta Hondarrabian ere —adineko hitzunen edota hizkerari hobeto eutsi diotenen solasean, batik bat— ezagunak izatea. Horren adibide dira oraindik ere Hondarrabian bizirik dirauten *atorra*, *buruilla*, *matela* eta *galdetu*, 'eskatu' adierarekin. Bortzirietan ere, bestalde, badira gauzregun arrotz samar gertatzen diren hitzak, *arotz* eta *zurgin* horren adibide.

- BONAPARTE, Louis-Lucien. 1877. *Observations sur le basque de Fontarabie, d'Irun, etc.*, Paris, Ernest Leroux
- BONAPARTE, Louis-Lucien. (Phon.) *Phonologie de la langue basque dans tous ses dialectes...*, 1868 aldeko eskuizkribu argitaragabea
- BOZAS URRUTIA, Rodolfo. 1963-64. «Contribución al Diccionario Vasco. Palabras de Arano», *Euskera*, 8-9: 213-221
- CAMINO, Iñaki. 1994. «Abiaburu bat aezkeraren azterketarako», *Euskal Dialektologiako Kongresua, ASJU-ren gehigarriak*, 28. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 59-160
- ELKARREN ARTEAN. 1995. *Zubieta 1931-1936*, Irun, Luma
- ETXEBARRIA, Jose M. 1985. «Gaintzako euskeraren alderdi fonetiko batzuk». Eusko Ikaskuntza, *Hizkuntza eta Literatura*, 4. zb., 125-142
- ETXENIKE, Maite (arg.). 1988. «Stress and pitch. (Luis Mitxelena zenak utzitako langaia)», *Euskera*, 33-2: 495-521
- FRAILE, Idoia & FRAILE, Ainhoa. 1996. *Oiartzungo hizkera*, Oiartzungo Udala
- GAMINDE, Iñaki. 1994. «Nafarroako menperagailuez», *FLV*, 66. zb., 227-250
- GAMINDE, Iñaki. 1996. «Lesakako azentu eta intonazioaz», *FLV*, 71. zb., 45-70
- GAMINDE, Iñaki & HUALDE, Jose I. 1995. «Euskal azentuaren atlaserako: zenbait isoglosa», *ASJU-n argitaratzekoa*
- HOLMER, Nils M. 1964. *El idioma vasco hablado*, *ASJU-ren gehigarriak*, 5. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia
- HUALDE Jose I. 1996. «Arbizuko hizkeraren zenbait soinu bereizgarritz», *Uztaro*, 18. zb., 49-60
- HUALDE Jose I. & SAGARZAZU, Txomin. 1991. «Acentos del Bidasoa: Hondarribia», *ASJU*, 25-1: 137-152
- HUALDE J. I., ELORDIETA, G. & ELORDIETA, A. 1994. *The Basque Dialect of Lekeitio*, *ASJU-ren gehigarriak*, 34. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia
- IBARRA, Orreaga. 1995. *Ultzamako hizkera*, Iruñea, Nafarroako Gobernua
- IBARRA, Orreaga. 1996. «Bonaparteren sailkapena eztabaidatuz», *FLV*, 71. zb., 71-86
- INIGO, P., SALABERRI, P. & ZUBIRI, J. J. 1995. «-ki aditz-atzizkiaren gainean», *FLV*, 69. zb., 243-295
- IRIZAR, Pedro. 1981. *Contribución a la dialectología de la lengua vasca* (2 liburuki), Gipuzkoako Aurrezki Kutxa Probintziala, Donostia
- IRIZAR, Pedro. 1991. *Morfología del verbo auxiliar guipuzcoano* (2 liburuki), Euskaltzaindia
- IRIZAR, Pedro. 1992a. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro septentrional* (2 liburuki), Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia
- IRIZAR, Pedro. 1992b. *Morfología del verbo auxiliar alto navarro meridional*, Nafarroako Gobernua & Euskaltzaindia
- ITURAIN, Iñaki & LOIDI, Loren. 1995. *Orioko euskara*, Orioko Udala
- IZAGIRRE, Kandido. 1967. «Altsasuko euskeraren gai batzuk», *ASJU*, 1: 45-97
- LABAKA, A., AZURZA, M. E. & BEREZIARTUA, J. I. 1996. *Lasarte-Oriako euskararen azterketa*, Lasarte-Oriako Udala
- LARRAMENDI, Manuel. 1745. *Diccionario trilingue del castellano, bascuence, y latin*, Donostia
- LARRAMENDI, Manuel. 1969. *Corografía o descripción general de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa*. [J. I. Tellexea Idigoras, arg.], Donostia, Sociedad Guipuzcoana de Ediciones y Publicaciones
- LARRASKET, Jean. 1931. «Beñát, Larrajáko belhagilii (I)», *RIEV*, 22: 229-240. Facsimila: LGEV, Bilbo, 1972
- LEKUONA, Manuel. 1956. «-ki, gerundio-atzizki?», *Euskera*, 1: 145-148
- LETAMENDIA, Juan A. 1990. «Hondarribiko euskara. Bokalismoari buruzko oharrak», *Hondarribia*, 40. zb., 42-45
- LETAMENDIA, Juan A. & SAGARZAZU, Txomin. 1992. «Hondarribiko hizkera Roque Jazinto Salazarren predikuan (1778)». Euskaltzaindia, *Iker-7*, 497-533
- LOPETEGI, Leon (arg.). 1973. *Obras Completas de Agustin de Kardaberaz* (2 liburuki), Bilbo, LGEV
- MITXELENA, Koldo. 1950. «En torno a algunos aspectos del habla de Rentería (Guipúzcoa)», *BAP*, 6: 89-94
- MITXELENA, Koldo. 1953. «Contribución al conocimiento del dialecto roncalés». Berrarg. in Mitxelena 1988: 246-272

- MITXELENA, Koldo. 1958. «Euskaltzaindian sartzerakoan Ormaetxea jaunak egindako itzal-dia eta Mitxelena jaunaren erantzuna», *Euskera*, 3: 36-44
- MITXELENA, Koldo. 1962. «Apostillas de un renteriano». Berrarg. in Mitxelena 1988: 423-425
- MITXELENA, Koldo. 1972. «A note on old Labourdin accentuation». Berrarg. in Mitxelena 1987: 235-244
- MITXELENA, Koldo. 1976. «Acentuación alto-navarra». Berrarg. in Mitxelena 1987: 245-260
- MITXELENA, Koldo. 1977. *Fonética Histórica Vasca*. 2. arg. zuzendua eta hobetua: ASJU-ren gehigarriak, 4. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia. Berrarg. 1985
- MITXELENA, Koldo. 1978. «Arantzazutik Bergarara», *Euskera*, 24-2: 467-477
- MITXELENA, Koldo. 1987. *Palabras y textos*, Leioa, EHU
- MITXELENA, Koldo. 1988. *Sobre historia de la lengua vasca* (2 liburuki), ASJU-ren gehigarriak, 10. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia
- N'DIAÏE, Geneviève. 1970. *Structure du dialecte basque de Maya*, The Hague-Paris, Mouton
- OIHARTZABAL, Beñat. 1984. «ba- baiezkoa aurrezkia», *Euskera*, 29-1: 351-371
- ORMAETXEA, Nikolas. 1918. «Acento vasco», *RIEV*, 9: 1-15. Facsimila: LGEV, Bilbo, 1969
- PAGOLA, Rosa M. 1992. *Euskal fonetika Nafarroan* (2 liburuki), Iruñea, Nafarroako Gobernua
- REBUSCHI, Georges. 1983. «A note on focalization in Basque», *Journal of Basque Studies*, 4-2: 29-42
- SAGARZAZU, Txomin. 1994. «Hondarribiko mintzairazko ikuspegiak: Larramendi, Bonaparte, Azkue», *Euskal Dialektologiako Kongresua*, ASJU-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 589-631
- SALABURU, Pello. 1984. *Hizkuntz teoria eta Baztango euskalkia: fonetika eta fonologia* (2 liburuki), Leioa, EHU
- SÁNCHEZ CARRIÓN, José M. 1974. «esan / erran en el área lingüística altonavarra», *FLV*, 17. zb., 261-264
- ZUAZO, Koldo. 1994. «Burundako hizkera», *Euskal Dialektologiako Kongresua*, ASJU-ren gehigarriak, 28. zb., Donostia, Gipuzkoako Foru Aldundia, 297-364
- ZUAZO, Koldo. 1997. «Euskara Araban», *Uztaro*, 21. zb., 79-95
- ZUBIETAKO UDALA. 1996. *Zubietako istorio zaharrak* (ez da zehaztu egilearen izena)

LABURPENA

Mende eta laurden iragan da Bonapartek bere euskalki sailkapena aurkeztu zuenetik (1869). Tarte luze horretan aurrerapen nabarmena egin du euskal-aritzak eta euskalkiak eurak ere aldatuz joan dira, jakina. Bonaparteren sailkapena berrikusteko garaia heldua dela dirudi, beraz, eta horretarako Oiartzun eta bere inguruko hizkerak izan ditut aztergai. Goinafarreraren barruan sartu zituen Bonapartek Lezo eta Irun bitarteko hizkera gipuzkoarrak, baina gaurerregun, behinik behin, ez da hain garbi azaltzen lotura hori.

RESUMEN

Ha transcurrido ya más de un siglo y cuarto desde que el príncipe Bonaparte diera a conocer su clasificación de los dialectos vascos (1869). Dado el importante avance que a lo largo de ese período han conocido los estudios vascos y dada también la evolución que han experimentado los propios dialectos, parece llegado el momento de revisar su posición actual. En este artículo se han tomado como muestra las hablas de Oiartzun y sus alrededores, consideradas como altonavarras en la clasificación de Bonaparte.

RÉSUMÉ

Plus de 125 ans se sont déjà écoulés depuis que le prince Bonaparte fit connaître sa classification des dialectes basques (1.869). Etant donnés les progrès

réalisés dans les études basques au cours de cette période, et aussi, l'évolution que les propres dialectes ont connue, on dirait que le moment est venu de réviser sa position actuelle. Dans cet article, ont été pris comme échantillons, les parlers d'Oartzun et de ses alentours, considérés comme haut-navarrais dans la classification de Bonaparte.

ABSTRACT

It has been a century and a quarter since Prince Bonaparte published his classification of the Basque dialects (1869). Given both the important advance that Basque studies have experienced during this period, and the evolution that the dialects themselves have undergone, it would appear that the moment has come to review the current situation. For the purposes of this article, the dialects of Olartzun and the surrounding area have been selected by way of an example. Bonaparte classified them as "altonavarras" (from the north of Navarra).